

ISSN: 2530-6561
2021eko abendua
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Errenta eta aberastasun banaketaren desparekotasuna munduan

Patxi Zabalo

Errenta eta aberastasun banaketaren desparekotasuna munduan

Patxi Zabalo

patxi.zabalo@ehu.eus

Ekonomia Aplikatua Saila eta Hegoa Institutua, UPV/EHU

Aurkibidea

1. Desparekotasuna: kontzeptua eta neurketa	5
1.1. Kontzeptua	5
1.2. Desparekotasunaren neurketa	6
2. Desparekotasunaren bilakaera	9
2.1. Errenta banaketaren desparekotasuna azken berrehun urteetan	9
2.1.1. Eskualdeen eta herrialdeen arteko desparekotasuna	9
2.1.2. Barne desparekotasuna	11
2.1.3. Desparekotasun globala	20
2.2. Munduko aberastasun banaketaren desparekotasuna	27
2.2.1. Eskualde eta herrialdeen arteko desparekotasuna	27
2.2.2. Barne desparekotasuna	29
2.2.3. Desparekotasun globala	33
3. Kapitalismo neoliberala eta desparekotasuna	36
4. Azken gogoetak	41
4.1. Berdintasun materiala eta aukera berdintasuna	41
4.2. Merkatu librea eta desparekotasuna	41
4.3. Analisi neoklasikoaren hegemonia, neoliberalismoa eta desparekotasuna	42
4.4. Haserretu... eta ekin	43
5. Bibliografia	43

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurrezaga
Iker Etxano
Mertxe Larrañaga
Elena Martínez Tola
Mikel Zurbano

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

[Errenta eta aberastasun banaketaren desparekotasuna munduan](#)

Egilea: Patxi Zabalo

hegoak zabalduz - 22. zk. 2021eko urtarrila

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. / Faxa: 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,
Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 3.0 Espainia.

Lizentzia osoa:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>



Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Laburpena: Desparekotasuna zer den eta nola neurtzen den gaingiroki azaldu ondoren, munduko errentaren eta aberastasunaren banaketan dagoen desparekotasunaren bilakaera aztertzen da lan honetan. Horretarako, eskuragarri dauden bi iturri onenak hartu dira kontuan: World Inequality Lab-eko World Wealth and Income Database, batetik, eta Credit Suisse taldearen munduko aberastasunari buruzko txostenak, bestetik. Ondoren, laburpen grafiko zabal batean aurkezten dira iturrietan egindako aurkikuntzak, kapitalismoaren bilakaerarekin zerikusi estua dutenak denak, kapitalismoaren egungo fase neoliberalarekin bereziki. Hortik aurrera, birbanaketaren beharra planteatzen da, errentatik eta aberastasunetik harago. Eta bukatzeko, gai honi buruzko gogoeta batzuk egiten dira.

Hitz gakoak: desparekotasuna, kapitalismo neoliberala, birbanaketa.

Abstract: After briefly explaining what is meant by inequality and how it is measured, this paper studies the evolution of inequality in the distribution of income and wealth at the global level. It draws on the best available sources, essentially the World Inequality Lab's World Wealth and Income Database and Credit Suisse's global wealth reports. The essay presents an extensive graphical summary of the findings, which relate to the evolution of capitalism, particularly its current neoliberal phase. Next, the paper raises the need for redistribution, which must go beyond income and wealth. It concludes with some reflections on this issue.

Keywords: inequality, neoliberal capitalism, redistribution.

Lan honen helburua da errenta eta aberastasun banaketari dagokionez munduan dagoen desparekotasunari buruzko ikuspegi panoramikoak ematea eta desparekotasun horri aurre egiteko gogoeta eta proposamen batzuk planteatzea. Horretarako, lehenik eta behin, aztergai dugun desparekotasun mota zedarritu eta hura neurtzeko erabilitako adierazleak aurkeztuko ditugu. Bigarrenik, errentaren eta aberastasunaren banaketan dagoen desorekari buruz (eta desoreka horrek denboran zehar izan duen bilakaerari buruz) eskuragarri dauden datu nagusiak azalduko ditugu (hori da, hain zuzen, lan honen muina). Hirugarrenik, neoliberalismoaren eta desparekotasun ekonomikoaren artean dagoen lotura aztertuko dugu. Eta, azkenik, gogoeta egingo dugu gai garrantzitsu eta gaurkotasun handiko honi buruz.

1. Desparekotasuna: kontzeptua eta neurketa

1.1. Kontzeptua

Desparekotasunaren kontzeptuak berdintasunik eza adierazten du. Hura aztertzeko, ezinbestekoa izango da, beraz, zer konparatzen den eta zer berdintasun motaz ari garen ondo zehaztea. Gizakiei dagokionez, haien kondizio pertsonaletatik (generoa, adina) eta haiek bizi diren inguruaren baldintza ekonomikoetatik, sozialetatik edo ingurumenekoetatik datoz desparekotasunak. Eta gizabanakoak, etxeak, gizarte taldeak edo bizi diren lurraldeak konparatuz azter daitezke. Gainera, aukera berdintasuna (elikadura, osasuna, hezkuntza, enplegua...) edo emaitza berdintasuna (elikadura egokia, osasun egoera, hezkuntza maila, errenta...) kontuan hartuko diren edo ez ere zehaztu beharko da.

Nolanahi dela ere, lan honetan, desparekotasun mota bakarra aztertuko dugu: mundu mailan, errentaren (hau da, urtero jasotako diru sarrera) eta aberastasunaren (hau da, bizitzan zehar metatutako edo oinordetzan jasotako ondarea) banaketan pertsonen artean (batzuetan, helduak bakarrik hartuko dira kontuan) dagoen desparekotasuna, hain zuzen. Horretarako, eskualdeen eta herrialdeen arteko aldeak aztertuko ditugu lehenik, bai eta haien barne desparekotasuna ere, emaitzak deskribatzen dituzten datuak aurkeztuta. Datu horiek, gero, kapitalismo industrialaren bilakaerarekin erlazionatuko ditugu, haren egungo fase neoliberalarekin bereziki.

Horrek esan nahi du gizakien arteko beste desparekotasun iturri garrantzitsu asko azterketa honetatik kanpo geratuko direla. Hasteko, genero desparekotasuna bera, emakumeen eta gizonen arteko sexuagatiko diskriminazioaren ondorio dena. Horrek pribilegio sozial, kultural eta juridikoak ematen dizkie gizonei, eta, ondorioz, errenta eta aberastasuna eskuratzeko bidea errazten, azterketa honen emaitzetan jasotzen den bezala. Desparekotasun mota horren zioek, kapitalismoarekin lotuta egon arren, patriarkatuan dituzte erroak; izan ere, patriarkatua, kapitalismoaren aurretikoa izateaz gain, kapitalismoarekin batera bizi izandakoa da, haren fase guztietatik igarotakoa.

Lanetik datorren errentari dagokionez, soldata arrakala eragiten duten hainbat fenomeno aipatu behar dira, hala nola soldata diskriminazioa, lan segregazioa (lanpostu feminizatuak eta, horregatik, gutxietsiak) eta *kristalezko sabaia* deiturikoa (lanbidean gora egitea zailtzen duten oztopoak). Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera (LANE), mundu mailan emakumeek gizonek baino % 20 inguru gutxiago irabazten dute¹.

Hala ere, arrakala hori soldatapeko enpleguari bakarrik dagokio: ez ditu kontuan hartzen ez etxeko lana (janaria prestatzea, etxea garbitzea), ez zaintza lana (haurrak, zaharrak, desgaitasun edo eritasunen bat duten pertsonak zaintzea), baldin eta ordainsaririk gabeko jarduerak bada². LNEk (2018) kalkulatu duenez, mundu mailan, ordaindu gabeko lan horren % 76 emakumeek hartzen dute beren gain, eta gizonek baino

1 Halaxe da: % 16 inguru gutxiago, baldin arrakala lan egindako ordu bakoitzeko kalkulatu bada; eta % 21 inguru gutxiago, baldin hileko soldataren gainean kalkulatu bada, lanaldi partzialeko enpleguan emakume gehiago ari delako. Arrakala hori faktorekako haztapenaren bidez doitu gero, % 19ra heltzen da lan egindako ordu bakoitzeko, eta hileko arrakala ia ez da aldatzen (LANE, 2019).

2 Ordainpeko etxeko lanetan eta zaintza lanetan ere emakumeak dira nagusi: sektoreko enpleguaren % 70, mundu mailan (LANE, 2018).

3,2 aldiz denbora gehiago ematen dute zeregin horietan. Horra zergatik den txikiagoa emakumeen parte-hartzea ordaindutako lan merkatuan eta handiagoa lanaldi partzialeko enpleguan. Izan ere, mundu mailan, ordaindutako lan orduen % 36 baino ez dituzte egiten emakumeek. Gainera, gutxiago kobratzen dute ordu horietako bakoitzeko, eta horregatik dute partaidetza txikiagoa munduko diru sarreretan eta ondarean. Nahiz eta gizonek baino lan gehiago egin. Izan ere, ordaindutako eta ordaindu gabeko lanean ematen duten denbora batuta, emakumeek, gizateriaren erdia baino zertxobait gutxiago izanik (2020an, Mundu Bankuaren arabera, % 49,58), munduan lan egiten diren orduen % 53 hartzen dute beren gain.

Aberastasunari dagokionez, eskuragarri dauden estimazio bakanen arabera, gaur egun, munduko aberastasunaren % 60 inguru gizonen esku dago, eta emakumeen esku gainerako % 40a. Eta hori, azken hamarkadetan Europan, Ipar Amerikan eta Txinan izan den hazkunde arinari esker (Credit Suisse, 2018: 25-31).

Eta genero bereizkeriak berekin dakarren desparekotasun horri gehitu behar zaizkio, gainera, gizarte klasean, arraza bereizkerian eta abarretan jatorria dutenak; izan ere, bereizkeria horiek, berez bidegabeak izateaz gain, oztopo dira errenta eta aberastasuna erdiesteko bidean ere. Lan honetan ezin dugu, ordea, dena aztertu.

1.2. Desparekotasunaren neurketa


Gizarte baten desparekotasuna neurtzeko, banaketa bat ezarri beharra dago, lehenik eta behin, gizarte hori osatzen duen pertsonen kopurua eta guztizko errenta edo aberastasunetik pertsona horietako bakoitzari dagokion zatia erakutsiko dituen. Datuak txikienetik handienara ordenatu ondoren, pertzentil deritzen taldeetan banatzen dira: datu horietako bakoitzaren azpitik dagoen populazioaren ehunekoa zenbatekoa den adierazten dute, hain zuzen, pertzentilek. Hala, pertzentila 30 duen pertsona bat populazio horren % 30etik gora dago. Populazioa bost zatitan banatzen bada (tarte bakoitza populazio osoaren % 20 izango da), zati bakoitzari kintila deritzo; eta tarte bakoitza banaketaren % 10 bada, berriz, dezila. Bosgarren dezila mediana da, hau da, populazio bat bi zatitan banatzen duen erdiko balioa. Eta bederatzigarren dezila da altuena, diru sarrera gehieneko % 10ari dagokiona.

Horrek aukera ematen digu batzuen errenta kontzentrazioa ikusteko (diru sarrera handienak dituen % 10ena edo % 1ena, normalean), bai eta beste batzuen pobrezia ere. Eta errentaren banaketan goi-goian eta behe-behean dauden tarteen arteko zatidura errazak ezartzeko ere erabiltzen da. Adibidez, P80/P20 ratioa (kintil ratioa ere deitua): 80 pertzentilaren (edo goreneko kintilaren) eta 20 pertzentilaren (edo beheareneko kintilaren) artekoa; edo P90/P50 edo P90/P10 ratioak. Errentaren eta aberastasunaren banaketan dagoen desparekotasuna aurkezteko modu bat da hori, oso intuitiboa eta interpretatzen erraza.

Hala ere, askotan, % 10 aberatsenari dagokion atalasea 50 pertzentilari (mediana) edo 10 pertzentilari dagokion atalasearen artean zatitzen da. Horrek badu eragozpen bat: ez da kontuan hartzen guztizko errentaren edo aberastasunaren zati handi bat; izan ere, goiko % 10ek diru sarrera guztien heren bat edo bi bereganatzen ditu, eta ondarearen erditik % 90eraino bitarte. Jakina, horrek desparekotasunari buruzko ikuspegi lasaigarriago bat ematen du, eta hori da, antza, estatistika horiek argitaratzen dituzten administrazio nazional eta nazioarteko helburua. Horregatik, hobe da talde bakoitzak atxikitako errentaren edo aberastasunaren (edo haien batez besteko diru sarreraren edo ondarearen) zatien artean ezartzea erlazio horiek, bereizten dituzten atalaseen artean ezartzea baino (Piketty, 2014: 292-294 eta 2019:789).

Beste aukera bat da adierazle sintetikoak erabiltzea, desparekotasun maila zifra batera ekartzeko. Gini indizea da ezagunena eta erabiliena errentaren eta/edo aberastasunaren banaketaren desparekotasunaren adierazle sintetikoaren artean. Eta hain ezagunak ez diren beste batzuk bezala (Theil edo Atkinson, kasurako), Lorenzen kurbarekin loturik dago.

1. grafikoa



Hona hemen desparekotasunaren adierazpen grafiko bat, Max O. Lorenzek 1905ean aurkeztua (1. grafikoa). Ardatz horizontalak populazioaren ehuneko metatua adierazten du, eta ardatz bertikalak, errentaren edo aberastasunaren ehuneko metatua. Banaketa guztiz zuzena balitz (pertsonek % 10i diru sarreraren % 10 dagokie, eta horrela hurrenez hurren), kurba hori bat etorriko litzateke jatorritik igarotzen den 45 graduko lerroarekin, hots, erdikariarekin. Eta desparekotasun perfektu bat balego (diru sarrera guztiak banako baten esku), bat etorriko litzateke erdikariak (hipotenusa gisa) ardatz horizontalarekin eta eskuineko ardatz bertikalarekin osatutako angeluzuzenaren katetoekin.

Horretan oinarri harturik, Corrado Gini bere izena daraman koefizientea ezarri zuen 1912an. Lorenzen kurbaren eta erdikariaren arteko azalera (a) (hots, kontzentrazio azalera) erdikariaren azpiko azalarekin (a+b) zatitzearen emaitza da koefizientea: hau da, $a/(a+b)$. Gini koefizientea 0tik 1era bitarteko balio bat da: 0 erabateko berdintasuna da, eta 1, erabateko desparekotasuna. Gini indizea koefiziente hori da, ehunekotan adierazita: 0tik 100era bitarteko balioak hartzen ditu, beraz.

Haren objektibotasuna nabarmendu ohi duten arren, Gini indizea erabiltzean inplizituki onartzen da banaketaren erdiko zatian gertatzen diren aldaketek muturretan gertatzen direnek baino eragin handiagoa dutela indizearen balioan. Eta mutur banatuko (aberatsena eta pobreena) aldakuntzek pisu bera dutela (Piketty, 2014: 290-292 eta 2019:788).

Gainera, bi herrialdeetako Gini indizeak alderatuz gero, soilik baieztatu daiteke txikiena duena ez dela bestea bezain desorekatua izango Lorenzen kurbak gurutzatzen ez badira. Izan ere, gurutzatzen badira, banaketaren zenbait alderditan desparekotasunari ematen zaion garrantziaren arabera izango da hori. Beraz, beste adierazle batzuk bezala, ez da desparekotasunaren neurri neutral bat, neurketa zientifiko huts bat, errenta desiragarriaren banaketari buruzko balorazio normatiboak egin beharra baitakar. Horregatik, Anthony Atkinsonek mekanismo bat sortu zuen 1970ean, bi banaketaren arteko konparaketak inplizituki dakartzan desparekotasunei buruzko lehentasunak azaltzeko³. Alabaina, Atkinson indizeak Gini indizeak baino askoz hedapen txikiagoa izan du, konplexutasuna dela-eta.

Bestalde, 2011n, Gabriel Palmak ikusi zuen ekonomia gehienetan Barne Produktu Gordinaren (BPG) erdia errentaren banaketa metatuaren erdiko % 50ek bereganatzen duela (5-9 bitarteko dezilek), hots, pobreen (1-4 bitarteko dezilak) eta aberatsen (10 dezila) artean dagoen geruza horrek. Horretan oinarri hartuta, Palma ratioa delakoa kalkulatzeko, biztanleriaren % 10 aberatsenak atxikitako BPGaren zatia biztanleriaren % 40 pobreenak atxikitakoarekin zatitu behar da. BPGaren erdia (beste erdia *erdiko klasearen* esku dago) aberatsen eta pobreen artean nola banatzen den erakusten duen adierazle horrek ez dauka Gini indizeak banaketaren erdialdean gertatzen denarekiko duen sentikortasun gehiegizko hori, ez eta muturretan gertatzen denarekiko duen sentikortasun falta erlatibo hori ere. Horregatik, eta sinplea delako, erabilgarriagoa eta hobea da bestea baino, herrialde bakoitzeko desparekotasunari buruzko erabaki politikoak (pobrezia murrizteko

3 Atkinsonek *berdintasunezko errenta baliokidearen* ideia azaldu zuen, zeinak aukera ematen baitzion desparekotasunagatik alferrik galdutako errentaren ehunekoa gizarte ongizateko funtzio baten arabera baliosteko.

neurriak, gehienbat) hartzeko orduan (Cobham et al., 2015). Nazio Batuek 2030erako ezarritako Garapen Jasangarrirako Helburuetan islatzen da hori, neurri batean; hamargarren helburuaren lehen xedean, hain zuzen: "Pixkanaka, biztanleriaren % 40 pobreenaren diru sarreren hazkundea Estatuko batez bestekoa baino handiagoa izatea eta horri eustea".

Gini indizeak badu beste muga bat: egoera berezi batzuetan izan ezik ezin da taldetan deskonposatu, eta, hartara, ezin bakoitzari legokiokeen desparekotasunaren zatia aztertu. Aitzitik, Theil indizeek beti onartzen dute deskonposizio batukorra, halako eran non indize agregatua talde *arteko* osagai baten (kanpo desparekotasuna neurtzen duena) eta talde *barruko* beste baten (barne desparekotasuna neurtzen duena) batura baita.

Desparekotasunaren neurketa, erabilitako adierazlearen arabera ez ezik, erabilitako datuen motaren eta kalitatearen arabera ere izaten da. Gehien erabiltzen den informazio iturria etxez etxeko inkestak dira, diru sarrerei, ondareari eta beste aldagai demografiko eta sozial batzuei buruzko elkarrizketa pertsonalen emaitza. Horrek aukera ematen du errenta eta aberastasun desparekotasunak beste desparekotasun batzuekin erlazionatzeko, hala nola genero, jatorri, hezkuntza edo lurralde desparekotasunekin.

Hala ere, etxez etxeko inkestok eragozpen bat dute: ez dituzte behar bezala islatzen errentaren eta aberastasunaren goiko tarteak, maila altuenekoak batez ere, ordezkaritza txikia izaten dutelako. Gainera, batez ere kontsumoan zentratzen dira, eta aberastasunaren adierazle hori askoz garrantzitsuagoa da gizartearen zatirik pobreenarentzat aberatsenarentzat baino, azken horrek bere errentaren zati handi bat aurrezten baitu. Horren ondorioz, banaketaren zatirik ahaltsuenaren errenta eta aberastasuna ez dira, sistematikoki, behar adina aintzat hartzen, eta, beraz, benetan daudenak baino desparekotasun maila txikiagoak jasotzen dira.

Etxez etxeko inkesten muga horiek gainditzeko, beste informazio iturri batzuetara jotzea komeni da. Batez ere zerga arlokoetara, errentaren eta aberastasunaren banaketaren goiko aldea hobeto islatzen dutelako eta askoz epe luzeagoak hartzen dituztelako. Hala ere, zerga ihesa dela eta, zergetatik datozen datuek ere ez dute behar adina aintzat hartzen errenta handien zatia; baina etxez etxeko inkestek baino gehiago bai, hala ere. Eta, herrialde batzuetan, Hego Ekonomikoan batez ere, ez dute behar bezala islatzen populazio pobreenaren zati handi baten jarduera, populazio horrek, ekonomia informalean edo ezkutukoan diharduenez, ez duelako zuzeneko zergarik ordaintzen. Horregatik, eskuragarri dauden datu iturri guztiak konbinatu behar dira, kontu nazionalak barne. Azken horiek abantaila bat dute: nazioarteko erakundeek ezarritako definizioekin bat datozen, eta horrek erraztu egiten du haien arteko konparaketa (Atkinson, 2106: 75-87; Piketty, 2014: 31-36).

Hala eta guztiz ere, datu base gehienek etxez etxe egindako inkestetan lortutako informazioa baino ez dute ematen⁴. Egia da kasu batzuetan beste iturri batzuekin osatzen saiatzen direla, errentaren eta aberastasunaren banaketaren goiko aldean gertatzen dena hobeto islatzeko. Horrela, Credit Suisse Ikerketa Institutuak *Forbesen* aberatsenen zerrenda eta beste argitalpen batzuk erabiltzen ditu populazio tarte horretako aberastasunaren banaketa zehazteko (Credit Suisse, 2021b: 4-8 eta 112-114).

Ildo horretan, World Wealth and Income Database (WID.world) proiektua nabarmentzen da, 2015ekoa, Atkinsonek eta Pikettyk 2011tik bultzatutako World Top Incomes Database (WTID) proiektuaren ondorengoa, zerga iturrien, inkesten, aberastasunaren eta kontu nazionalen datuak sistematikoki konbinatzen dituena. Datu horiekin, berrehun bat herrialderen Errenta Nazionala (BPGa ken kapitalaren balio-galera gehi atzerriko errenta garbia) eta Aberastasun Nazionala berregiten ditu (Alvaredo et al., 2018). Hala, kontuan hartuta, batetik, haren estaldura maila

4 Honako hauek, adibidez: Mundu Bankuaren PovcalNet (<http://iresearch.worldbank.org/PovcalNet>), OCDEren Income (IDD) and Wealth (WDD) Distribution Databases (<https://www.oecd.org/social/income-distribution-database.htm>), Luxembourg Income Study (LIS) eta Luxembourg Wealth Study Database (LWS) (<https://www.lisdatacenter.org>), eta Latinoamerika eta Kariberako Base de Datos Socioeconómicos (SEDLAC) (<https://www.cedlas.econo.unlp.edu.ar/wp/estadisticas/sedlac>). Baita beren datuak hainbat iturritatik biltzen dituzten beste ekimen batzuk ere, hala nola: UNU-WIDER-en (<https://www.wider.unu.edu/project/world-income-inequality-database-wiid>) World Income Inequality Database (WIID), Lakner-Milanovic World Panel Income Distribution (LM-WPID) (<https://www.worldbank.org/en/research/brief/World-Panel-Income-Distribution>) eta Standardized World Income Inequality Database (SWIID) (<https://fsolt.org/swiid>).

eta fidagarritasuna, eta, bestetik, datu guztiak irispide librekoak direla (World Inequality Laben gainerako proiektuak eta argitalpenak bezala), WID izango da lan honen informazio iturri nagusia, bakarra ez bada ere.


2. Desparekotasunaren bilakaera

Lehenik eta behin, errentaren banaketaren desparekotasuna aztertuko dugu (hori da gehien jorratu dena), eta, ondoren, aberastasunaren banaketaren desparekotasuna (datu gutxiago daude desparekotasun mota horri buruz, askoz handiagoa izan arren).

2.1. Errentaren banaketaren desparekotasuna azken berrehun urteetan

2.1.1. Eskualdeen eta herrialdeen arteko desparekotasuna

Kapitalismo industrialaren berrehun urteotan, per capita BPGa aurreko beste edozein garaitan baino askoz azkarrago hazi da munduko ia herrialde guztietan. Hori bai, hazkunde horretan alde handiak egon dira eta daude lurralde batzuetatik besteetara, 2. grafikoa ikus daitekeen bezala.




Iturria: lan honetarako berriaz sortua (2020ko Maddison Project Database-ko datuak baliatuz).

Termino erlatiboetan, munduko eremu aberatsenen eta pobreenen arteko desparekotasuna, per capita BPGari dagokionez, handitu egin da denborarekin. 1820an, Mendebaldeko Kimuak deituriko herrialdeetako (Estatu

Batuak, Kanada, Australia eta Zeelanda Berria) per capita BPGa 2.513 dolarrekoa zen, eta Mendebaldeko Europakoa, 2.307 dolarrekoa; hau da, Saharaz hegoaldeko Afrikakoa (800 dolar) baino 3 bat aldiz handiagoak. 2018an, berriz, Saharaz hegoaldeko Afrikakoa (3.532 dolar) baino 11-15 aldiz handiagoak izan ziren (Mendebaldeko Europa: 39.790 dolar; Mendebaldeko Kimuak: 53.756). Neurri txikiagoan bada ere, distantzia erlatibo hori handitu egin da, halaber, Ipar Ekonomikoaren (Mendebaldeko Europa, Mendebaldeko Kimuak eta Japonia) eta Hegoaldeko eskualdeen artean, Ekialde Hurbilaren kasuan izan ezik.

Desparekotasunaren bilakaerari buruzko azterlan gehienetan, ez dira kontuan hartzen *bizi mailaren* desparekotasun absolutuak, baina oso esanguratsuak dira⁵, eta, horregatik, guztiz egokia da haiei ere erreparatzea (Atkinson, 2016: 72-73). Hala, Ekialdeko Asiako 'per capita' BPGa Mendebaldeko Europakoa baino 1.218 dolar txikiagoa eta Mendebaldeko Kimuetakoa baino 1.424 dolar txikiagoa zen 1820an; 2018an, berriz, 23.463 eta 37.429 dolarreko aldea zegoen, hurrenez hurren. Eta Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialdeekiko tartea ere izugarri handitu da: 1820ko 1.507 eta 1.713 dolarretik gaur egungo 36.258 eta 50.224 dolarrera.

Herrialde aberatsenen eta pobreenen arteko aldeak eskualdeen artekoak baino are handiagoak dira. Arazoa da ez dugula herrialde pobreei buruzko informazio bereizi askorik, datu historiko askorik; besteak beste, koloniak izan zirelako. Adibidez, Erresuma Batuak, 1820an, 3.306 dolarreko 'per capita' BPGa zuen, Nepalgoa (641 dolar) baino 5,2 aldiz handiagoa; eta Estatu Batuetakoa (AEB) (2.674 dolar) 4,2 aldiz handiagoa zen. 2018an, Nepalgo 'per capita' BPGa 2.727 dolarrekoa zenean, haien arteko aldeak 14 eta 20,3 aldiz handiagoak izan ziren, hurrenez hurren. Zenbaki absolutuetan, Erresuma Batuarekiko eta AEBekiko tartea 2.665 eta 2.033 dolarrekoa zen 1820an, eta 35.331 eta 52.608 dolarrekoa izateraino handitu zen 2018rako.



Iturria: lan honetarako berriaz sortua (WID.world-eko datuak baliatuta).

5 Alde absolutuak handitu egiten dira hazkunde ekonomiko hutsarekin, baina erlatiboak konstante mantentzen dira. Hori izaten da desparekotasun erlatiboaren neurri *kontserbadoreena* aukeratzeko arrazoietako bat (Milanovic, 2017: 37-42).

3. grafikoak 1950etik aurrera hautatutako herrialde batzuetako biztanleko Errenta Nazionalaren bilakaera erakusten digu. Aldi horretaz askoz datu gehiago ditugu, eta esan dezakegu desparekotasun globalaren murrizketa duela ezaugarri nagusietako bat, aurrerago ikusiko dugunez.

Nabarmentzekoa da Asiako herrialde batzuetan, Iparreko ekonomietan ez bezala, desparekotasun erlatiboak izandako beherakada, handiagoa Europako eta Japoniako ekonomien kasuan (azken hamarkadetan motelago hazi direlako) Estatu Batuetakoan baino. Hala, AEBekin alderatuta, Hego Koreako per capita errenta 10,8 aldiz txikiagoa zen 1950ean, eta 1,7 aldiz txikiagoa 2019an; Txinak 17tik 3,3ra jaitsi du erlazio hori, Indonesiak 19tik 4,5era, eta Indiak 14,3tik 7,2ra. Aitzitik, 3. grafikoan agertzen diren Latinoamerikako eta Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialdeetan handitu egin da haien eta Iparreko herrialdeen arteko distantzia erlatiboa.

Bestalde, Iparreko per capita errentarekiko desparekotasun absolutuak gora egin du kasu guztietan, Hego Koreakoan izan ezik, behera egiten baitu Erresuma Batuekin alderatuta, eta gora, berriz, Japoniarekin alderatuta. Horri dagokionez, aipatzekoa da, 1950ean, Latinoamerikako hiru ekonomia handienetakoak baino nabarmen txikiagoak zirela bai Japoniako biztanleko errenta (5.725 dolar) bai Hego Koreakoa (2.020 dolar) (XXI. mendearen hasieratik herrialde *aurreratutzat* jotzen da Hego Korea): Brasilek 6.920, Mexikok 9.549 eta Argentinak 12.095 dolarreko errenta zuten biztanleko. Gauza bera gertatzen zen Txinakoarekin: 1.275 dolar; Etiopiakoa (1.846 dolar biztanleko) baino are txikiagoa, baina dagoeneko gainditua du Brasilekoa, eta Mexiko eta Argentinakoaren parekoa izatera iritsiko da laster.

Bilakaera desberdin horren atzean, Asiako herrialde horiek aurrera eramandako industrializazio-estrategia arrakastatsuak daude: bakoitzak bere garaian eta bere moduan aplikatu zituen estrategia horiek, baina estatuak parte-hartze handia izan zuen guztietan, merkatuaren gidari jardunez. 1980ko hamarkadatik aurrera Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) Latinoamerikako eta Afrikako ekonomiei ezarritako politika neoliberalen oso bestelako estrategia da hori, bistan denez.


2.1.2. Barne desparekotasuna

Herrialde bakoitzeko errenta banaketaren barne desparekotasunari buruzko datu historikoak ez dira BPGaren edo Errenta Nazionalaren bilakaerari buruzkoak bezain ugariak. Zerga iturriak baliatuta, Emmanuel Saez eta Thomas Pikettyren lan aitzindariak Estatu Batuetan oinarritu ziren. Han, 1913tik daude eskuragarri datuok, errentaren gaineko zerga ezarri zenetik, hain zuzen. Gero, WIDeko taldeak beste herrialde batzuetara zabaldu ditu iturriok, eta estimazioak finduz joan da. Orain, nahiago dute estimaziook zerga aurrekoak⁶ eta Errenta Nazionalari buruzkoak izatea.

4. grafikoak Estatu Batuetako errentaren kontzentrazio izugarria erakusten du: diru sarrera handienak dituen % 1ek diru sarrera txikiak dituen biztanleriaren erdiak baino zati handiago bat beretzen du, bai gaur egun, bai XX. mendearen lehen erdian. Diru sarrera handienak dituen % 10ek ere antzeko partaidetza erakusten du, Errenta Nazionalaren % 45etik % 50era bitarte metaturik. Proporzio hori murriztu egin zen II. Mundu Gerraren ondoren, eta handitu gero, 1980ko hamarkadatik aurrera. Hala, diru sarrera handienak zituzten % 1en eta % 10en batez besteko errentaren eta diru sarrera txikiak zituzten % 50en errentaren arteko erlazioa 15 eta 70 zen, 1913an, hurrenez hurren, eta 10 eta 42, aldiz, 1944an; proporzio txikiak 1970. urtean neurtu ziren, eta handik aurrera, handituz-handituz joan ziren: 2019an, 17 eta 70.

6 Zerga eta transferentzien aurreko desparekotasunak (pentsioak eta langabezia prestazioak izan ezik) lehen mailako errentaren edo merkatuko errentaren banaketari buruzko informazioa ematen digu. Iparreko ekonomietan, zerga eta transferentzia arruntek errenta erabilgarrian duten birbanaketari loturiko eragina kontuan hartuta, desparekotasuna % 20 eta % 30 artean murrizten da, gutxi gorabehera (Piketty, 2019: 632-633).

4. grafikoa. Zerga aurreko Errenta Nazionalaren banaketa desparekotasuna Estatu Batuetan, 1913-2019 (ehunekoak)




Iturria: lan honetarako berriaz sortua, WID.world-eko datuak baliatuta.

5. grafikoak Ipar Ekonomikoko beste herrialde batzuetako barne desparekotasunaren bilakaera erakusten du, epe luzeko datuak kontuan hartuta. Australiak eta Kanadak AEBetakoaren antzeko bilakaera dute, baina errentaren kontzentrazioa txikiagoa da banaketaren goiko tarteetan. II. Mundu Gerraren ondoren, Japonian, errentaren kontzentrazioa AEBetan baino txikiagoa zen banaketaren goiko aldean, baina Iparreko beste ekonomia batzuetan baino zertxobait handiagoa. Diru sarrera txikiak dituen % 50en partaidetza handia (baina gainbeherakoa) nabarmentzen da.


XX. mendearen hasieran, diru sarreren banaketa desorekatuagoa zen Europan Estatu Batuetan baino. Eskandinaviar herrialdeak ziren errentaren kontzentrazio mailarik handienak zituztenak banaketaren goiko aldean, eta 1980ko hamarkadara arte haiek izan zuten beherakada handiena, Frantziarekin batera. Herrialde horietan, desparekotasunaren ondorengo hazkundea ez zen izan hain nabarmena. Alemanian eta Erresuma Batuanberiz, hasierako desparekotasunen zuzenketa txikiagoa da, eta 1980tik aurrerako gorakada, nabarmenagoa.

5.grafikoa. Zerga aurreko Errenta Nazionalaren banaketa desparekotasuna Ipar Ekonomikoko zenbait herrialdetan. Datuak ditugun lehen urtea-2019 (ehunekoak)


Kanada, 1920-2019




Australia, 1912-2019




Japonia, 1886-2019




Erresuma Batua, 1918-2019




Danimarka, 1870-2019



Suedia, 1903-2019







Iturria: lan honetarako berriaz sortua, WID.world-eko datuak baliatuta.

6. grafikoan, gaur egun suspertze bidean dauden potentzia nagusietan (BRICS akronimoaz ezagutzen dira) eta Ekialde Hurbilean diru sarreren banaketan dagoen desparekotasunaren bilakaera ageri da. Eskualde hori da nagusi munduko errentaren kontzentrazioan, nahiz eta 1980ko hamarkadaren hasieratik beherazko joera hartua duen, sailkapenean atzetik dituen Latinoamerikako eta Saharaz hegoaldeko Afrikako desparekotasun mailetara hurbiltzeraino.


Dena den, Hegoafrikak zalantzan jartzen du nagusitasun hori, goiko pertzentilean izan ezik, gainerik baititu oraindik ere Ekialde Hurbila, Errusia, India eta, batez ere, Brasil. Izan ere, 1992an *apartheida* abolitu arren, Hegoafrikan azkar hazi da desparekotasuna laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik aurrera,

estimazioak ditugun Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde gehienetan ez bezala, non pixkanaka txikituz doan. Eta, tradizioz desparekotasun maila handiak izan dituen eskualde batean, Brasil Latinoamerikako erraldoiko, errentaren kontzentrazioa apur bat jaitsi zen mende hasieran, baina gero berriro handitu da, eta horri esker tropelaren buru dirau, mundu mailan.


6. grafikoa. Zergen aurreko Errenta Nazionalaren banaketa desparekotasuna Brasilen, Errusian, Indian, Txinan, Hegoafrikan eta Ekialde Ertainean. Datuak ditugun lehen urtea: 2019 (ehunekoak)





India, 1922-2019



Txina, 1980-2019





Iturria: lan honetarako berriaz sortua, WID.world-eko datuak baliatuta.

Bestalde, Errusia desparekotasunaren igoera azkar eta handiagatik nabarmentzen da, SESBeko (Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasuna) ekonomiak erreka jo eta Batasuna desegin zenez geroztik. Eta horri beheko % 50en partaidetzan izandako atzerakada izugarria gehitzen bazaio, ez da harrizkoa Errusia munduko desparekotasunaren buru izatea gaur egun. Oso bestelako egoera bizi izan zen 1917ko boltxebikeen iraultzaren ondoren: diru sarrera handieneko % 1en eta % 10en bitarteko geruza azkar eta asko mehetu zen, eta, aldiz, diru sarrera gutxien zuen % 50en egoerak hobera egin zuen.

Indian ere errentaren kontzentrazioak nabarmen egin zuen gora 1990eko hamarkadaren hasieratik, eta, bertako ekonomia nazioarteko merkatuetara zabaldu ahala, bizkortu ere egin zen gorakada hori. Horrek munduko herrialderik desorekatuenen artean kokatzen du India XXI. mendearen hasieran; eta kontraste handia egiten du herrialdeak 1947an independentzia lortu zuenetik 1980ra arte gizarte talde baztertuenean aldeko diskriminazio positiboko politikak abian jarri izanari esker errentaren banaketa desparekotasunean erakutsi zuen beheranzko joera argiarekin (Piketty, 2019: 419-435).

Txinan ere etengabe handitu zen desparekotasuna, merkataritza eta finantza liberalizazioak aurrera egin ahala. Baina mende honen lehen hamarkadaren amaieratik moteldu eta egonkortu egin da joera hori, gobernuak barne eskaria handituz kanpo merkatuekiko mendekotasuna murrizteko bultzatutako politiken ondorioz. Horren ondorioz, gaur egun diru sarreraren banaketan daukan desparekotasun maila Estatu Batuetakoa baino apalxeagoa da.


Azken batean, jokabide orokorra ez da AEBetakoaren oso desberdina (errenta kontzentrazio handiagoa datuak ditugun aldiaren hasieran eta amaieran), eta gezurtatu egiten du Kuznetsen kurba deritzona. Izan ere, desparekotasunari buruzko azterlanetan aitzindari izandako Simon Kuznetsek 1955ean adierazi zuenez, ekonomiaren hazkundeak barne desparekotasunaren hazkundera eragiten du hasieran, baina, gero, joera hori motelduz joaten da, eta abiapuntura itzultzen, berdintasun gutxiko egoerara. Hala ere, aurkeztutako datuek U baten forma erakusten dute (1980tik aurrera desparekotasuna tarte guztietan handitzen da), eta ez Kuznetsek aurreikusia zuen U alderantzikatu batena (Piketty, 2014: 25-31; Milanovic, 2017: 61-65).

2.1.3. Desparekotasun globala

Desparekotasun globala mundu osoko pertsonen artean gertatzen dena da, pertsona guztiak multzo bakartzat hartuta; hau da, non bizi diren kontuan hartu gabe. Herrialdeen arteko desparekotasuna (herrialde bakoitzeko batez besteko per capita BPGa duen ordezkari banaren arteko konparaketa) eta herrialde bakoitzeko barne desparekotasunak erkatuz kalkulatu da.

Chancelek eta Pikettyk (2021) diotenez, azken berrehun urteetan desparekotasun izugarria ageri da munduko biztanleriaren zati aberatsenaren eta gainerakoaren artean, diru sarrerak eskuratzeari dagokionez. Desparekotasuna azkar hazi zen 1910era arte; handik aurrera, oso maila altuetan egonkortu zen, 2000ra arte; eta, harrezkero, kolpetik gutxitu da, baina 1820an baino askoz handiagoa da oraindik ere. Beherakada hori 2008ko finantza-krisi handiaren ondorio izan da neurri handi batean, eta, beraz, goiz da luze iraungo duen jakiteko. Bestalde, Milanovicek (2017:242) adierazi du ezen, Txina izan den azken hamarkadetan desparekotasun globalaren indar murriztaile nagusia, haren hazkunde azkarrak desparekotasuna areagotzea ekarriko duela aurki, ekonomia pobreenetatik bereizten duen arrakala zabaldu ahala.

7. grafikoa. Desparekotasun globalaren Gini indizea errentaren banaketan, 1820-2020




Iturria: Chancel eta Piketty (2021).

7. grafikoa ikusten da desparekotasunak Gini indizearen arabera neurtuta nola egin duen gora XIX. mendean: 0,60koa zen 1820an, eta 0,72koa, berriz, 1910ean; gero, 0,69 eta 0,70 artekoa izan zen 1970era arte, eta 0,72raino igo zen 2000. urtean. Ordutik, aldiz, behera egin du azkar, eta 0,67koa izan zen 2020an⁷.

7 Milanovic (2020: 15-18) ere errentaren desparekotasun globalaren Gini indizearen bilakaera aurkezten du, 1820tik 2013ra, Bourguignon eta Morrisonen datuak (2002) 1980ra arte eta Lakner eta Milanovicenak (2016) ordutik aurrera eguneratuz. Bere grafikoa, I. Mundu Gerraren aurreko igoera 6. Grafikoa ikusten denaren antzekoa da, baina jaitsiera txiki bat baino ez dago gero, eta beste igoera bat II. Mundu Gerraren ondoren; handik XX. mendearen amaierara arte, mailarik altuenean mantentzen da, eta XXI. mendearen hasieran behera egiten hasten da berriro. Ordutik aurrera bi grafikoak bat datoz berriro.

8. grafikoa. Munduko diru sarrera handieneko % 10ek, diru sarrera txikieneko % 50ek, eta bitarteko % 40k errenta osoan izandako partaidetza, 1820-2020 (ehunekoak)



Iturria: Chancel eta Piketty (2021).

8. grafikoa ikusten den bezala, 1820-1910 bitartean desparekotasunak izan zuen hazkunde handia bi eragile nagusiri zor zaio: errentaren parte handi bat diru sarrera handienak zituen % 10en eskuetan kontzentratu izana, eta diru sarrera txikienak zituen % 50en partaidetza erdira murriztu izana. Lehenengo multzo horren partaidetza errenta osoaren % 50etik % 60ra igo zen, eta bigarrenarena, berriz, % 14tik % 7ra jaitsi. Bitarte horretan, gainera, biztanleriaren bitarteko % 40ren partaidetzak ere behera egin zuen, munduko errentaren % 36tik % 33ra, hain zuzen.


1920tik 1970era, diru sarrera handienak zituen % 10ek zati txiki bat galdu zuen, eta munduko errenta osoaren % 54 izatera jaitsi zen, biztanleriaren bitarteko % 40ren mesedetan (errenta osoaren % 40). Hori lortzeko, tarteko geruza horrek diru sarrera txikienak zituen % 50en partaidetzaren pare bat puntu beretu zituen, eta, hala, azken multzo horrek munduko errentan zuen pisua % 5eraino murriztu zen 1980an.

Ondoren, diru sarrera handienak zituen % 10ek berriz handitu zuen munduko errentan zuen partaidetza: 2000. urtean jo zuen gaina (% 61), eta handik aurrera behera egin zuen berriz, 2020ko % 55eraino. Denboraldi horretan, biztanleriaren bitarteko % 40 horrek justu kontrako bilakaera izan zuen: 2000. urtean izan zuen partaidetza txikiena (% 33), eta handik aurrera, gora egiten hasi zen, 2020an munduko errentaren % 38 beretzeraino. Bien bitartean, diru sarrera txikienak zituen % 50 gora egiten hasi zen, gutxi bada ere, eta 2020an munduko errentaren % 7 hartzera iritsi zen, XX. mendearen hasieran zuen maila bera, alegia.

Munduko biztanleen artean diru sarrera handienak zituen % 10en batez besteko errentaren eta diru sarrera txikieneko % 50 osatzen zuten pertsonen arteko erlazioa kalkulatu gero, ikusten da batzuen eta besteen arteko aldea 18 aldiz handiagoa zela 1820an eta 41 aldiz handiagoa 1910ean. 1980an jo zuen goia diferentzia horrek (53 aldiz handiagoa), eta handik aurrera txikitzen hasi zen, 2020an 38koa izatera iritsi arte (XX. mendearen hasieran zegoenaren antzekoa).

Jakina, konparazioa munduko biztanleriaren % 1 edo % 0,1 aberatsenarekin egiten bada, zifrak are mingarriagoak dira. Izan ere, 2020an, diru sarrera handienak zituen % 1ek diru sarrera txikienak zituen munduko biztanleriaren erdiak baino hiru aldiz errenta handiagoa zuen, guztizkoaren % 21. Hala, 3.800 milioi pertsona horiek munduko % 0,1 aberatsena osatzen zuten 7,6 milioiek baino errenta txikiagoa banatu zuten beren artean, azken horiek guztizkoaren % 9 beretu baitzuten (Chancel eta Piketty, 2021).

9. grafikoan ikusten den bezala, azken berrehun urteetan munduko errentaren hazkunde metatua biztanleriak izan duen partaidetza oso desberdinaren emaitza da hori. Hala, diru sarrera txikienak dituen % 30en errenta metatua % 600 inguru hazi da, eta laugarren eta bosgarren dezilena, pixka bat gehiago: % 800 eta % 1.000, hurrenez hurren. Aldiz, diru sarrera handienak dituen % 30en errenta metatua % 1.600 eta % 1.800 artean hazi da, diru sarreren banaketaren goi-goiko aldean egon diren (eta xehekiago azalduko ditugun) salbuespen bakanak kenduta.




Iturria: Chancel eta Piketty (2021).


10. grafikoaren laguntzaz, eskualdez eskualde azter daiteke errentaren munduko banaketaren bilakaera. Hala, European diru sarrera handienak zituen % 10ek 1910era arte izan zuen nagusitasun eztabaidaezina Ipar Amerikan errepikatu zen 1920-1930etik aurrera. Geruza horretan bertan, Ekialdeko Asiak (Txina, Japonia eta beste) eta Hego/Hego-ekialdeko Asiak (India, Indonesia eta beste) XIX. mendearen lehen erdian izandako posizio nabarmena berreskuratu zuten, neurri handi batean, 1980-90etik aurrera. Eta antzeko zerbait gertatu zen diru sarrera handienak zituen % 1 horren barruan ere, bi ñabardurarekin. 1920ko hamarkadatik aurrera, Europak Ipar Amerikan mesedetan galdu zuen nagusitasuna, eta, azken hamarkadetan, Ekialde Hurbilean, Latinoamerikan eta Errusian bizi diren pertsonen presentzia nabarmendu da. Eta eremu horietan dagoen barne desperekotasun handiaren isla da hori.

10. grafikoa. Errentaren munduko banaketaren osaera, eskualdez eskualde, biztanleriaren pertzentilen arabera, 1820-2020 (ehunekoak)


Diru sarrera handieneko % 10




Diru sarrera handieneko % 1



Diru sarrera txikieneko % 50




Diru sarrera ertaineko % 40



Iturria: Chancel eta Piketty (2021).

XX. mendearen erdialdetik aurrera, ordea, apenas dagoen europarririk edo iparramerikarrik diru sarrera txikiak dituen % 50en artean, nahiz eta Europak toki nabarmena izana zuen XIX. mendean. Tarte horretan bertan, nabarmentzekoa da, halaber, Asiako Ekialdeko pertsonen presentziak behera egin duela pixkanaka, eta, 1980tik aurrera, handituz joan dela Afrikaren, eta, neurri txikiagoan, Asiako Hego/Hego-ekialdearen partaidetza. Aitzitik, gaur egun, diru sarrera ertainak dituen % 40ren eskualdekako banaketa askotarikoa da, munduko populazioan duen partaidetzaren nahiko antzekoa.

Azkenik, Theil indizea baliatuta, 11. grafikoan garbi ikusten da desparekotasun globalaren zer zati den herrialde bakoitzeko diru sarreren banaketan dagoen barne desparekotasunaren ondorio, eta zein, berriz, herrialdeetako per capita errenten arteko desparekotasunaren ondorio. Gaur egun, barne desparekotasuna da, mundu mailan, pertsonen artean errentaren banaketan dagoen desparekotasunaren bi herenen jatorria, eta, 1820an, desparekotasunaren % 90ek zuen jatorri hori bera. Hala ere, 1980ra arte etengabe gora egin ondoren, herrialdeen arteko desparekotasuna izan zen desparekotasun globalaren eragile nagusia XX. mendearen azken herenean.



Iturria: Chancel eta Piketty (2021).

Chancel eta Pikettyren arabera (2021), faktore politiko eta instituzionalek funtsezko eginkizuna dute deskribatu berri den desparekotasun globalaren bilakaera horretan. Alde batetik, barne desparekotasuna ez da berez murrizten. Lurraren jabetza erregimena aldatuko duen nekazaritza erreformarik gabe, kapitalaren eta lanaren arteko gatazkaren desoreka gutxituko duen sindikalismoa indartu gabe, errenta eta aberastasuna birbanatuko duen zerga sistema mailakaturik gabe, edota iraultzarik gabe, pertsona aberatsenek ez diete beren borondatez uko egiten beren diru sarreren eta ondasunen iturriari. Horrexek murriztu zuen (erritmo, modu eta maila desberdinetan) barne desparekotasuna 1910-1920ko hamarkadatik aurrera munduko hainbat tokitan, areago Mendebaldean, II. Mundu Gerraren ondoren, ongizate estatua deiturikoarekin. Eta justu horren kontrakoa da 1980-1990 urteetatik gertatzen ari dena, neoliberalismoa (aurrerago aztertuko dugu zehazki gai hori) nagusitu zenetik.

Bestalde, Europaren nagusitasunaren mendean sortutako zentro periferia sistema hori izan da, neurri handi batean, 1820-1950 bitartean herrialdeen arteko desparekotasuna hain azkar hazi izanaren arrazoirik behinena, munduko ekonomia hierarkizatu zuenez gero. II. Mundu Gerran inperio kolonialak desagertu

ondoren, desparekotasun hori motelago hazi zen 1980ra arte, eta, ondoren, murriztuz-murriztuz joan zen, gaur egunera arte. Txina da horren adibiderik argigarriena. Horregatik, herrialdeen barneko eta arteko desparekotasunen joko horretan, XXI. mendearen hasieratik hona lehenbizikoa nagusitu da. Hau da, gaur egun, diru sarreraren barne banaketaren tarte jakin batean (pertzentilean) egoteak garrantzi handiagoa du nazionalitateak (bizilekuak) baino, pertsona batek errentaren banaketa globalean zer toki hartzen duen zehazteko orduan⁸.

2.2. Munduko aberastasun banaketaren desparekotasuna

Hereditutako eta/edo metatutako ondarea (zorrik gabeko aktibo higiezinak, profesionalak eta finantzarioak) askoz ere kontzentratuago dago gutxi batzuen eskuetan urteko diru sarrera baino, eta, beraz, aberastasunaren banaketan dagoen desparekotasuna errentaren banaketan dagoena baino handiagoa da beti.

Aberastasunaren banaketan egun dagoen desparekotasuna aztertzeko (errentaz baino askoz datu gutxiago ditugu aberastasunaz), WIDeko datuez gain, Credit Suisse Ikerketa Institutuak urtero argitaratzen dituen txostenak ditugu. 194 ekonomiatako biztanle helduen aberastasun garbiari buruzko datuak (zorrak kenduta) ematen dituzte, 2000. urtetik hona. Hemen, lan honetan, bi iturriak erabili ditugu. Esan beharra dago, beste ezer baino lehen, erakundeok estimazio desberdin samarrak egiten dituztela aberastasun mailai dagokienez, baina, gainerakoan, bateragarriak direla aipatutako joera orokorrei dagokienez. Hori horrela da iturri eta metodologia bat baino gehiago erabiltzen dutelako. Eta, batez ere, nazioarteko konparazioak egiteko orduan WIDek erosteko ahalmenaren parekotasunak (EAP) (herrialde aberatsen eta pobreen arteko desparekotasunaren garrantzia gutxitzera jotzen dutenak) baliatzen dituelako, eta Credit Suissek, berriz, merkatuko truke tasak⁹.


2.2.1. Herrialdeen arteko desparekotasunak

Aberastasunaren banaketan dagoen desparekotasunaren azterketa historikoa egiteko, Pikettyren azterlanetara (2014 eta 2019) eta World Inequality Labeko haren lankideek egindako ikerketetara jo behar da. 12. grafikoak zenbait herrialderen (datu gehien ematen dituztenen) batez besteko aberastasunaren epe luzeko bilakaera jasotzen du. Joera orokorrak per capita errentarena gogorarazten digu, haren periodizazioari dagokionez bereziki.

8 Ondorio hori, datu fidagarri eta eguneratuagoetan oinarritua, kontraesanean dago Bourguignon eta Morrisonekin (2002) eta Lakner eta Milanovicekin (2016): herrialdeen arteko desparekotasuna (bizilekuak zehaztua) barne desparekotasuna baino handiagoa dela diote haiek.

9 Hala, Credit Suisseren ustez, 2019an, Suitzako pertsona heldu bakoitzeko aberastasuna 603.233 dolarrekoa zen, Kongoko Errepublika Demokratikokoa 1.356 dolarrekoa, eta Haitikoa 814 dolarrekoa. Hau da, Suitzako Kongokoa baino 445 aldiz handiagoa eta Haitikoa baino 741 aldiz handiagoa zen. WIDen aburuz, berriz, urte horretan bertan, Suitzako batez besteko aberastasuna 583.122 dolarrekoa zen, Kongoko Errepublika Demokratikokoa 5.496 dolarrekoa, eta Haitikoa 26.330 dolarrekoa. Hau da, Suitzako Kongokoa baino 106 aldiz handiagoa eta Haitikoa baino 22 aldiz handiagoa zen.

12. grafikoa. Aberastasun Nazionalaren bilakaera historikoa pertsona heldu bakoitzeko. Datuak ditugun lehen urtea: 2019 (2020ko EAP dolarretan)




Iturria: Lan honetarako berriaz sortua, WID.world-eko datuak baliatuta.

Hala, hazkunde moderatua ikusten da I. Mundu Gerrara arte, gero moteltze edo atzeraldia, eta, II. Mundu Gerraz geroztik, hazkunde bizkorra, azken hamarkadetan aldaketa esanguratsuak izan baditu ere. Ipar Ekonomikoko herrialdeen artean, 1990eko hamarkadaren hasieratik Japoniak izan duen gainbehera eta geldialdi erlatiboa nabarmentzen dira, baita 2008an lehertu zen finantza krisi handiaren ondorioak ere, ia herrialde guztietan ageri direnak, intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin.

Eta plangintza zentraleko bi ekonomia handiek ere, beheragoko maila batetik abiatu arren, goranzko joera nabarmena erakusten dute kapitalismo neoliberalarekin bat egitean. Jakina, Errusiaren hasierako deskalabrua, XXI. mendeko lehen urteetara arte gainditu ez zuena, eta finantza krisi handiaren ondoren izan zuen atzerakada, kontrastean daude Txinako batez besteko aberastasunaren etengabeko hazkundearekin (Txinak azkar murriztu zuen Iparreko potentziekiko zuen atzerapen erlatiboa). Hala, 1980ko hamarkadaren hasieran, pertsona heldu bakoitzeko ondare garbia AEBetako bano 14 aldiz txikiagoa izatetik, 2007an 5,2 aldiz txikiagoa eta 2019an 2,3 aldiz txikiagoa izatera igaro da. Nolanahi ere, 1979 eta 2019 artean, AEBetako batez besteko aberastasunaren (pertsona heldu bakoitzeko 152.472 dolarretik 401.384 dolarrera) eta Txinakoaren (10.938 dolarretik 171.785 dolarrera) arteko distantzia absolutua 141.534 dolarretik 229.599 dolarrera handitu zen.

13. grafikoa. Hautatuko herrialdeak: Aberastasun Nazionalaren bilakaera pertsona heldu bakoitzeko, 1995-2019 (2020ko EAP dolarretan)



Iturria: lan honetarako berriaz sortua (WID.world-eko datuak baliatuta)

13. grafikoan ikus daiteke Hego Ekonomikoko kontinente bakoitzeko herrialde jendetsuenetan, Saudi Arabian, Asiako lau dragoietan (Hego Korea, Taiwan, Hong Kong eta Singapur, garai horretan NDFk ekonomia aurreratutzat jo zituenak) eta Suitzan batez besteko aberastasunak 1995etik izan duen bilakaera. Goiko aldean, arreta ematen du Saudi Arabiak buruzagitza galtzea, Taiwanen mesedetan. Baina azken hamarkadan, Suitza eta Singapur ere gaintitu ditu Taiwanek, eta lehen postuan kokatu da mundu mailan. Izan ere, 2019an, herrialde horiek eta Hong Kongek 12. grafikoko guztiak baino batez besteko aberastasun handiagoa zuten, eta Hego Korea AEBen eta Suediaren azpitik zegoen oraindik.


Grafikoaren behealdean, berriz, Argentinak bakarrik eusten dio Txinaren mailaren gaitetik. Dena den, Latinoamerikako hiru ekonomietako bakar batek ere ez du lortzen Estatu Batuekiko atzerapen erlatibo murriztea, eta bai ordea, zertxobait, Egiptok eta Nigeriak. Etiopiak, berriz, nabarmen txikiagotu zuen tarte hori, 1995ean AEBetakoa baino 25 aldiz aberastasun txikiagoa izatetik 2019an 12 aldiz txikiagoa izatera igaro baitzen. Horren arrazoia da 8.422 dolarretik 34.706 dolarrera igo zela Etiopiako aberastasuna, eta AEBetakoa, aldiz, 212.360tik 401.384ra, diferentzia absolutua 160 mila dolar baino gehiagotan handituta. Eta beste horrenbeste lortu zuten Indonesiak eta Indiak: izan ere, lehenaren eta AEBen arteko diferentzia erlatiboa 10 aldiz handiagoa izatetik 5 aldiz handiagoa izatera murriztu zen 1995 eta 2019 artean, eta Indiarena eta AEBen artekoa 14 aldiz handiagoa izatetik 7 aldiz handiagoa izatera.

Beraz, nahiz eta herrialde pobreen eta aberatsen artean batez besteko aberastasunaren diferentzia erlatiboak murriztu egin diren, distantzia absolutua handitu egin da, eta izugarria izaten jarraitzen du, Txinaren eta, neurri txikiagoan, Hegoaldeko beste ekonomia batzuen hazkunde ikusgarria gorabehera.

2.2.2. Barne desparekotasuna

Herrialde batzuei buruz datu historiko osatu samarrak ditugun arren, aberastasunaren barne banaketan dagoen desparekotasunari buruzko serie luzeak errentari buruzkoak baino gutxiago dira kopuruz. Frantzia

(1789ko iraultza burgesaren ondoren ezarritako oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari esker) eta Erresuma Batuan (XIX. mendearen amaierako zerga erreformaren ondorioz) dago informaziorik onena, 14. grafikoan ikusgai (Piketty, 2014: 370-373).



Iturria: lan honetarako berriaz sortua (WID.world-eko datuak baliatuta)


XIX. mendean zehar, Frantziak aberastasun kontzentrazio ikaragarria zuen: % 80tik gora goiko dezilaren eskuetan zegoen, eta % 1 aberatsenak erdia inguru biltzen zuen. Joera, gainera, goranzkoa zen, eta areagotu egin zen I. Mundu Gerraren aurreko *Belle Époque* deiturikoan. Eta Erresuma Batuan are handiagoa zen oraindik kontzentrazio hori: goiko dezilak aberastasunaren % 92 baino pixka bat gehiago biltzen zuen, eta % 1 aberatsenak, % 70. Beraz, Frantzian, biztanleriaren erdi pobreenak aberastasun nazionalaren % 2 zeukan bere esku, eta hori baino are gutxiago XX. mendearen hasieran; bitarteko % 40k, % 15 inguru.

Gero, ondarearen banaketaren desparekotasuna nabarmen jaisten hasi zen, 1970eko hamarkadara arte, bai Frantzian, bai Erresuma Batuan. Goiko dezilaren zatia aberastasun nazionalaren erdiraino murriztu zen, eta % 1 aberatsenarenak hondoa jo zuen, % 15en inguruan, 1980ko hamarkadaren hasieran. Horren onuradun nagusia biztanleriaren tarteko geruza izan zen (50 pertzentiletik 90 pertzentilera bitartekoa): aberastasunaren % 40 atxiki zuen, hau da, bidezko banaketa batean egokituko zitzaiokeena. Aitzitik, erdi pobreenak, hobera eginda ere, aberastasunaren % 9 baino ez zuen eskuratu 1980ko hamarkadaren bigarren erdian. Eta handik aurrera, desparekotasunak gorako bidea hartu zuen berriro, motel bada ere.


Aberastasun banaketaren desparekotasunak antzeko bilakaera izan du Europako herrialde gehienetan. Pikettyren arabera (2019), XIX. mendean zehar eta XX. mendearen hasieran jabetzaren gizarteak (*propriétaires*) sortu ziren, zeinaren ezaugarria baitzen desparekotasun handiak izatea. Eredu horren krisiak bi mundu gerra eta kolonia zaharren independentzia prozesuak ekarri zituen, eta, ondorioz, erregimen komunistek eta sozialdemokratek (berdinzaleagoak) hartu zuten haren lekua. Eta joan den mendearn, ideologia *neoproprietarista* bat ernaberritzeak (neoliberalismoa) egungo hiperkapitalismoa ekarri zuen, desparekotasun iturri handia hori ere.



15. grafikoa. Aberastasun banaketa Ameriketako Estatu Batuetan (1962-2019), Errusian (1995-2015), Indian (1961-2012) eta Txinan (1978-2015) (ehunekoak)

Ameriketako Estatu Batuak (1962-2019)



Errusia (1995-2015)





Iturria: lan honetarako berriaz sortua (WID.world-eko datuak baliatuta)

Aberastasun banaketaren desperekotasunaren hazkunde hori Estatu Batuetan ere gertatu zen. Mendebaldeko Europan baino askoz kontzentratuago dago han ondarea (15. grafikoa). Izan ere, AEBetako Gini indizea 85 puntukoa izan zen 2020an, Frantziakoa (70), Erresuma Batukoa (71,7), Alemaniakoa (77,9) eta Japoniakoa (64,4) baino askoz handiagoa. Iparreko ekonomia handien artean, Japoniak izan zuen indizerik baxuena, besteak beste berak zuelako aberastasun gutxien biltzen zuen pertzentil aberatsena ere (Credit Suisse, 2021a).

Dena den, kalitate kaskarragoko iturrietan oinarrituta egon arren, XXI. menderako ditugun estimazioen arabera XX. mendearen hasieran soilik lortu zen AEBetako aberastasunaren kontzentrazioa Europako herrialdeetakoaren antzeko mailara iristea. Baina I. Mundu Gerraren osteko aberastasunaren deskontzentrazioa askoz txikiagoa izan zen AEBetan Europan baino. Eta 1980ko hamarkadatik aurrerako kontzentrazio hazkundera, askoz ere handiagoa. Horren ondorioz, XXI. mendearen hasieran, AEBetako ondare desparekotasunak handiagoak izan ziren XIX. mendearen hasierakoak baino, Europan ez bezala (Piketty, 2014: 382-385).

Beste ezaugarri bereizgarri bat da bitarteko % 40ren partaidetzak gainbehera egin zuela laurogeiko hamarkadaren erdialdetik aurrera, AEBetako aberastasunaren % 35 (bere goren maila) erdietsi ondoren. Beheko tarteko % 50en bilakaera antzekoa izan zen, baina, hori bai, oso maila baxuetan mantenduta: 1987an aberastasunaren % 2,8 izatetik (goren maila) 2008ko finantza krisi handiaren ondoren % 1 baino gutxiago izatera igaro zen, eta ondoren apur bat suspertu zen, 2019ko % 1,5 irrigarriraino.

Indian ere oso azkar handitu zen aberastasun banaketaren desparekotasuna 1980ko hamarkadatik aurrera (15. grafikoa). Credit Suisseren arabera (2021a), % 1 aberatsenak aberastasunaren % 40 zeukan bere esku 2020an; eta Gini indizea, 2000-2020 bitartean, 74,7tik 82,3ra igo zen.

Txinak aberastasun banaketan desparekotasuna txiki samarra zuela hasi zuen kapitalismorako trantsizioa, baina azkar eta etengabe handitu zen, batez ere XXI. mendearen lehen hamar urteetan. Handik aurrera, hazkundera egonkortzen hasi zen (15. grafikoa). Gini indizea, berriz, etengabe igo da urte horietan: 2000ko 59,9tik 2010eko 69,8ra eta 2020ko 70,4ra (Credit Suisse, 2021a).


Aldiz, Errusiaren kapitalismorako *bat-bateko* trantsizioak aberastasunaren kontzentrazioa kolpetik handitzea eragin zuen, % 1 aberatsenari dagokionez bereziki (15. grafikoa). Horrek, XX. mendearen amaieran jada, munduko ekonomia handienen buru kokatu zuen, Brasilekin lehia estuan: 2000. urtean, Gini indizea 84,7 puntukoa zen bi herrialdeetan, baina Brasilek kontzentrazio txikiagoa zuen banaketaren goi-goiko aldean. Eta XXI. mendean ere goranzko joera berretsi da bi kasuetan. 2020an, Brasilgo Gini indizeak Errusiakoa gainditu zuen (89 eta 87,8, hurrenez hurren), baina Errusiako % 1 aberatsenak sailkapen horretako buru segitzen du, lehiakide guztien aurretik (Credit Suisse, 2021a).

2.2.3. Desparekotasun globala

XXI. mendean, orain artekoan, munduko aberastasuna 117,8 bilioi dolarrekoa izatetik (% 55 finantzarioa eta % 45 ez-finantzarioa, batez ere etxebizitza eta lurra) 418,3 bilioi dolarrekoa izatera (% 54 finantzarioa eta % 46 ez-finantzarioa) igaro da; hau da, 3,6 aldiz handiagoa da orain. Eta, ondorioz, pertsona heldu bakoitzeko batez besteko ondarea ere handitu egin da, 2,5 aldiz handitu ere, 2000ko 31.378 dolarretik 2020ko 79.992 dolarrera (Credit Suisse, 2021b).

16. grafikoa, munduko aberastasunaren kontzentrazioak mende honetan izan duen bilakaera ageri da. Gini indizeak behera egin du etengabe, 2000ko % 91,9tik 2019ko % 88,2ra, eta pixka bat gora 2020an, % 88,8ra arte. Antzeko bilakaera izan du, baina aldakuntza nabarmenagoekin, % 5 eta % 10 aberatsenen partaidetzak aberastasun globalean. 2000n % 88,7koa zen; 2019an % 80,9ra jaitsi zen, eta 2020an, % 81,8ra igo. Argi dago COVID-19aren pandemiak eragindako krisiak nabarmen areagotu duela desparekotasuna. Hala ere, % 1 aberatsenen barruan joera desberdinak daude: 2000ko % 48,3tik 2008ko % 42,7ra jaitsi zen, baina, finantza krisi handia lehertu zenetik, goranzko joera izan du: % 44,9koa izan zen 2020an, urte bakar batean % 1,1 igota.

16. grafikoa. Aberastasun globalaren kontzentrazioaren adierazleak (ehunekoak)



Iturria: Credit Suisse (2021a).


Argitu beharra dago beheranzko joera hori, funtsean, Txinako eta, neurri txikiagoan, Indiako batez besteko aberastasunaren hazkunde izugarriaren ondorio dela, biek ala biek txikiagotu baitute Iparreko ekonomiekiko zuten aldea (12. eta 13. grafikoak). Hori da, halaber, % 1 aberatsenen eta beste tarte bilakaeren artean dagoen aldearen arrazoia, haien osaera desberdina delako. Hau da, mende honetan, orain artekoan, eta goiko pertzentilaren salbuespena eginda, herrialdeen arteko desparekotasun erlatiboaren murrizketa herrialde horietako gehienetako barne desparekotasunaren igoeraren gainera nagusitu da. Hala ere, faktore hori eragina galtzen ari da Txinako batez besteko aberastasuna munduko batez bestekora hurbiltzen den heinean, eta noranzkoa alda daiteke Txinako heldu bakoitzeko aberastasunak batez besteko globala gainditzen duenean (Credit Suisse, 2021a: 25).

17. grafikoan Credit Suisse erakundearen txostenetan aztertutako zazpi eskualdeetako aberastasunaren banaketa globalaren osaeraren bilakaera erakusten da. Txina eta India ere ageri dira horien artean, biztanleriaren tamaina dela eta¹⁰. Eta, hain zuzen ere, haien aurrerako bultzadak murrizten du desparekotasuna globala.

2020ko egoera zehatzago aztertuz gero, lehenik eta behin nabarmentzen da munduko biztanleriaren erdi pobreenak aberastasun globalaren % 1 baino gutxiago duela. Aldiz, goiko dezilak (% 10 aberatsena, 129.624 dolarretik gorako ondarea duena) munduko aberastasunaren % 82 hartzen du, eta goiko pertzentilak (% 1 aberatsena, 1.055.338 dolarretik gorako ondarea duena) % 45 (Credit Suisse, 2021b: 114).


10 Beraz, Asia-Ozeano Bareak ez ditu bi erraldoi demografiko horiek barne hartzen. Gainera, eskualde horren barruan, Hego Ekonomiko beste herrialde batzuekin batera, Ipar Ekonomikoko hainbat herrialde daude, hala nola Japonia, Hego Korea, Taiwan, Hong Kong, Singapur, Australia eta Zeelanda Berria, eta horrek asko zailtzen du batez bestekoen interpretazioa. Eta antzeko zerbait gertatzen da Europarekin: mendebaldeko zatia (Europar Batasuna eta Iparreko beste ekonomia batzuk) eta ekialdekoa (Errusia eta antzinako bloke sobietarreko beste herrialde batzuk) hartzen ditu barnean (Credit Suisse, 2021b: 21-24).

17. grafikoa. Aberastasunaren mundu mailako banaketaren osaera, eskualdeka, 2000 eta 2020 (munduko populazio helduaren ehunekoak eta dezilak eta pertzentilak)



Iturria: Credit Suisse (2021a).

18. grafikoa. Munduko aberastasunaren piramidea, 2020
(milioi pertsona helduak, dolarrek eta ehunekoak)



Iturria: Credit Suisse (2021a).

Planetan bizi diren 5.233 milioi pertsona helduen artean aberastasun globala nola dagoen banatuta erakusten du 18. grafikoa. Munduko biztanleria helduaren % 55ek (2.879 milioi pertsona) 10.000 dolarretik beherako ondarea duela eta aberastasun globalaren % 1,3 hartzen duela erakusten du, hain zuzen. Beste muturrean, goi-goiko tarteko 56 milioi pertsonak (munduko biztanleria helduaren % 1,1), milioi bat dolarretik gorako ondare garbia dutenek, aberastasun horren % 45,8 biltzen dute.

Munduko aberastasunaren kontzentrazio maila zentzugabeko horiek lotsagarriak dira, baita *filantropikismo* mozorrotuta ere, ehunka milioi gizakiren oinarritzko gabezia materialekin (elikadura, ura eta saneamendua, etxebizitza edo elektrizitatea) alderatzen direnean. Baina, hurrengo atalean azalduko dugun bezala, estrategia zehatz baten (hots, kapitalismo neoliberalaren) garaipenaren ondorio dira funtsean.

3. Kapitalismo neoliberal eta desparekotasuna


Kapitalismo industrialaren barruan, munduko hazkunde ekonomikoak eta per capita errentaren bilakaerak azelerazioak eta dezelerazioak izan dituzte. Horiek horrela, bost hazkunde fase bereizten dira¹¹. Lehena, 1820 eta 1870 artekoa, industria iraultza ezartzeari dagokio; bitarte horretan, munduko biztanle bakoitzeko BPGa % 0,5 hazi zen batez beste urtean, aurreko zortzi mendeetan baino hamar aldiz gehiago. Bigarren fasea inperialismoaren aroa da, *ordena liberala* ere deitua, 1870etik 1913ra luzatzen dena. Fase horretan, munduko per capita errenta urteko % 1,3ko erritmoan hazi zen. Aldi horren ezaugarri nagusiak hauek dira: inoiz ez bezalako hazkunde ekonomiko (urteko % 0,9, batez beste), desparekotasunaren hazkunde handia errentaren banaketan, eta aberastasunaren kontzentrazio izugarria. Izan ere, lehen kapitalismo horretan, merkatu askea zabaltzeak desoreka handitzea ekarri zuen, bai herrialde barneko desoreka, bai herrialdeen artekoa, bai eta, beraz, mundu osokoa ere.

11 Hemen, Angus Maddisonen (2002) ezarritako kapitalismoaren periodizazioari jarraitzen diogu, baina azken bi faseen mugak eta biztanleko BPGaren hazkundeari buruzko datuak Pikettyrenak (2014) dira.

Aldiz, hirugarren faseak, 1914tik 1950era, merkataritza eta finantza protekzionismoa bultzatzeko eta migrazioari mugak ixteko neurriak izan zituen ezaugarri, eta, hori dela eta, *desglobalizazioaren* aroa ere deitzen zaio garai hari. Aldi horretan, hazkundea moteldu egin zen (biztanleko BPGa urteko % 0,9 handitzen zen), desparekotasunaren gorakada gelditu egin zen, eta egoera lehengorutzen hasi. Eta bi gertaerotan zeresan handia izan zuten, noski, garai hura markatu zuten bi mundu gerrek.

Laugarren faseak 1950etik 1980ra bitarteko aldia hartzen du, II. Mundu Gerraren ondorengo hedapen ekonomikoarena. Aldi horretan, estatuaren esku-hartze keynestarra orokortu egin zen, merkaturia arautu zen, hura bridatu zen, eta Iparreko ekonomietan *ongizatearen* estatua (aberastasuna birbanatzen zuena) instituzionalizatu zen. Horren ondorioz, munduko per capita errenta inoiz ez bezala handitu zen (urteko % 2,5), eta diru sarreren banaketaren desparekotasunak¹² eta aberastasunaren kontzentrazioak inoizko murrizketa aldirik luzeena izan zuten. Horregatik, garai horretaz hitz egitean, *kapitalismoaren urrezko aroaz* edo *hogeita hamar urte loriatsuez* hitz egin ohi da. Eta ondotik zer etorri den ikusita, kapitalismoaren salbuespentzat hartu behar da garai hura, eta ez, askotan esan izan ohi den bezala, haren gailurtzat.

Izan ere, kapitalismoaren bosgarren faseak, 1980an hasi eta gaur egunera arte iraun duen globalizazio neoliberal honek, bestelako ezaugarri batzuk ditu, oso desberdinak: biztanleko BPGaren hazkundea moteldu egin da (urteko % 1,7, 1980 eta 2012 artean), eta errenta banaketan eta aberastasunaren kontzentrazioan dagoen desparekotasuna nabarmen handitu da. Baina horrek ez gaitu harritu behar: izan ere, egungo kapitalismo neoliberal honek kapitalismo gordinera bueltatzea du xede, loturarik gabeko eta noranahi zabalduetako merkatu autorregulatu batek araututako kapitalismo batera. Testuinguru horretan, tantakako sistema baten bidez egiten da errentaren banaketa, modu naturalean, birbanaketa politiken beharrik gabe, horiek hazkundea geldiaraziko luketelako. Eta horrek berez dakar desparekotasuna (haren berezko ezaugarri bat) handitzea.




Iturria: Chancel eta Piketty (2021).

12 Lan honetan aurkeztu ditugun WIDen datuak, diru sarreren desparekotasunari buruzkoak, zerga eta transferentzia arrunten aurreko Errenta Nazionalari buruzkoak diren arren, pentsioak eta langabezia-prestazioak barne hartzen dituzte, herrialde gehienetan horiek baitira diru sarrera birbanatzen gehien laguntzen duten elementuak.

Elefantearen kurba (19. grafikoan agertzen da bertsio bat) Branko Milanovicek (2017) diseinatu zuen, argi eta garbi erakusteko globalizazioaren irabaziak ez direla modu zuzenean banatzen. Diru sarreren hazkundetik munduko biztanleriaren gehiengoari geratzen zaion zatia % 1 aberatsenari geratzen zaiona baino askoz gutxiago handitzen dela erakusten du. Era berean erakusten du Txinako eta, neurri txikiagoan, *garapen bidean* dauden beste ekonomia batzuetako biztanleriaren zati handi bat tartea jaten ari zaiela Iparreko pertsona gehienei, zeinak ahultzen baitu desparekotasun globala areagotzeko joera.

Errentaren banaketa pertsonalaren bilakaera (datu ugari eman ditugu horri buruz orain artekoan) kapitalaren eta lanaren arteko diru sarreren (hots, biztanle gehienek diru sarreren iturri nagusia) banaketa funtzionalaren ondorio da neurri handi batean. 20. grafikoan ikus daitekeen bezala, laneko errenten zatia murrizten ari da joan den mendearen amaieratik: 1995ean munduko errentaren % 56,1 biltzetik 2015ean % 53,6 biltzera igaro da. Horrek esan nahi du bi hamarkadatan kapitalaren errentek munduko diru sarreren % 2,5 gehiago beretu dutela. Hala ere, hazkunde horren bi heren enpresa transnazional handienek (ETN), finantzarioek zein ez-finantzarioek, beretzen dituzte, tamaina txikiagoko beste enpresa batzuen kaltetan. Izan ere, munduan ehun mila ETN inguru eta milioika enpresa txiki eta ertain daude, zeinak nazio eremura mugatutako ekoizpen jarduera baitute. Horrela, ETN handi horiek % 5,7tik % 7ra handitu zuten hogeitau urtean salmenten gaineko mozkin tasa (UNCTAD, 2018:65).

Beste ikerketa batzuek frogatu dute laneko errenten partaidetzaren beherakada Iparreko ekonomia guztietan gertatzen dela 1980ko hamarkadaz geroztik. Zergatik hori? Bada, politika neoliberalen babespean, enpresek produktibitate gehikuntza gehienak beregana ditzaketelako. Aldiz, gerraosteko hedapen fasean, kapitalak eta lanak errenta nazionalean zuten partaidetza erlatiboak aldagabe irauteko joera zuen. Izan ere, patronalaren eta sindikatuen artean itun implizitu bat zegoen orduan, produktibitate gehikuntzak neurri berean banatzeko; eta negoziazio kolektiboaren bidez gauzatzen zen hori, sarritan gobernuak arbitratuta. Eta, kasu horretan, kapitalaren eta lanaren arteko errenta banaketa ez da aldatzen.



Iturria: UNCTAD (2018).

Horregatik, oso gogoan izan behar da, neoliberalismoa, 1930eko hamarkadaren amaieratik bertatik, merkatuen birbanaketa eta erregulazio politika hasiberriei erantzuteko sortu zela, eta aberastasunaren kontzentrazioa duela helburu. Bere alde argudiatzen du, kapital horrek hazkunde ekonomiko handiagoa ekarriko lukeela testuinguru lehiakor batean negozioak hasten dituztenen eskuetan balego, eta hortik pertsona guztiek lortuko luketela etekinik. Eta horretarako jokaleku egokia mundu mailako merkatu bakarra izango litzatekeela. Gainera, demokrazia liberal baten esparruan lortuko litzateke hori, askatasun ekonomikoa eta askatasun politikoa uztartuz. Hori da diskurtsoa.

Baina bere proiektuan ez dago halakorik: neoliberalismoak ez du nahi estatua desagertzerik, ezta mugak desagertzerik ere. Proiektu neoliberalak demokraziatik babestu nahi du merkatua, demokraziak merkatua zalantzan jar dezakeelako, hura zuzentzen saia daitekeelako. Izan ere, erabat baztertzen du justizia sozialeko edozein aldarrikapen kolektibori erantzuteko edo diru sarrera birbanatzeko aukera. Horregatik, neoliberalismoak hasieratik aipatzen du "estatu indartsu eta merkatu aske" baten beharra, "lehiaren esku ikusezina zuzenbidearen esku ikusgarriarekin osatzeko" beharra (Slobodian, 2021: 25-26).

Neoliberalismoa ez da liberalismo klasikoaren biziberritze hutsa, estatuak ekonomian duen esku-hartzea ahalik eta gehien murriztu nahi duena. Harago doa, eta konkurrentzia inposatzera bideratzen du bere jarduna; izan ere, aurrerapenaren funtsezko elementutzat dauka konkurrentzia, zeinak behar baitu merkatuaren logikaren eta legeen bidez arautua. Estatu neoliberalak ez da estatu ahula, atzera egiten duen estatua; eraldatu egiten da, arrazionaltasun berri bat inposatzeko. Elite ekonomikoentzat (enpresa transnazionalak eta aberats handiak) baliagarriak diren funtzioak gordetzen ditu, eta elite horiekin elkar hartuta jarduten du, gehiengo sozialaren kaltetan. Pribatizatu egiten du, desarautu, liberalizatu, enplegua eskastu, zerga sistemari progresibotasuna kentzen dio eta ongizate estatuaren gizarte babesa murrizten du. Baina, erresistentzia sozialak daudenez, krisi unek baliatzen ditu, ekonomikoak zein politikoak, murrizketa handienak egiteko, Naomi Kleinek (2007) *shockaren doktrina* deitzen duena aplikatuz. Azken batean, Estatuak bere gain hartzen du arrazionaltasun neoliberalak, konkurrentzia gizarte bizitzako esparru guztietako jokabide arau gisa orokortuz, eta enpresa, erdietsi beharreko eredu gisa (Laval eta Dardot, 2013; Brown, 2016).

Eta *mundu ordena* bat ezartzeko, globalismo neoliberalak nazioz gairik erakundeetara jotzen du: Bretton Woods (NDF eta Mundu Bankua), Munduko Merkataritza Erakundea (MME) edo Europar Batasuna. Kontua da kapital pribatuaren eskubideak babestea: kapitalok munduko merkatuan egiten dituzten mugimenduentzat oztopo izan daitezkeen erabaki nazionalak kontrolatzea, alegia. Horretarako, mundu mailako konstituzio ekonomiko gisa funtzionatzen duten joko arau batzuk ezartzen dira, lege nazionalak baliogabetzeko gai diren nazioz gairik auzitegiak sortzen dira, eta hori dena egiten da ordena ekonomikoa justizia sozialaren aldeko eskakizun politikoetatik babesteko (Slobodian, 2021).

Laburbilduz, neoliberalismo autoritarioa, orain nonahi agertzen ari dena eta batzuetan hauteskundeetan garaile ateratzen dena, ez da jatorrizko idearioaren endekapen bat. Fundatzaileetan ditu errota sustraiak, haiek ere, hasieratik bertatik, demokraziaren aurretik jartzen baitzuten legea (jabetza pribatua eta merkatu librea jainkotzen dituen legea). Adibide bat: 1970eko hamarkadan, Friedrich Hayekek zalantzan jarri zuen sufragio unibertsala bere *Zuzenbidea, legedia eta askatasuna* tratatuan, eta proposatu zuen arrakasta profesionala erdietsitako espezialistei bakarrik ematea Parlamenturako sarbidea. Ondoren, aditu horietako batzuk Justizia Gorte Goreneko kide izan litezke. Gorteak, jakina, ahalmen handiak lituzke: gizarte istilurik izanez gero larrialdi egoera deklaratzeko eskumena, besteak beste. Eta, hori gutxi balitz bezala, Hayekek sutuki goraiatu zuen Augusto Pinochet diktadoreak Txilen egindako esperimendu neoliberalak, Erresuma Batuan Margaret Thatcher kontseilatzaiez batera (Piketty, 2019).

Gauzak horrela, Milanovicek (2020) uste du kapitalismoaren etorkizuneko bilakaerak baldintzatuko duela munduko desperekotasunarena (ez dio alternatibarik ikusten sistema horri). Litekeena da, halaber, egungo *kapitalismo meritokratiko liberala* (1980ko hamarkadatik Ipar Ekonomikoan nagusi da eta eredutzat Estatu Batuak ditu) aldaera berdinzaleago baterantz lerratzea eta pertsona gehienentzat erakargarriagoa bilakatzea. Errentaren eta aberastasunaren kontzentrazioa murrizteak elite ekonomikoaren boterea eta erabaki politikoetan eragiteko gaitasuna mugatuko lituzke, eta, ondorioz, botere hori betiketza eragotziko luke. Beste aukera bat litzateke *kapitalismo politiko* edo *autoritarioarekin* bat egitea, estatuaren gidaritzapean. Horren adibide nagusia Txina da, baina beste ekonomia batzuetan ere baliatzen dute eredu hori, batez

ere Asia aldean, eta horien artean Errusia nabarmentzen da. Horrek egungo plutokrazia indartuko luke, eta elite ekonomiko eta politikoen mundu mailako nagusitasun bateratua sendotu, demokraziaren eta berdintasunaren kaltetan.

AEBei eta *merkatuko fundamentalismoak* eragindako desperekotasun handiari dagokienez, % 1 aberatsenaren gehiegikeriei muga jartzea proposatzen du Joseph Stiglitzek (2012). Nola? Bada, finantza sektorea eta dirulaguntza publikoak kontrolatuz, konkurrentzia hobeto erregulatuz eta goi mailako enpresa zuzendaritzaren boterea mugatuz. Neurri horiekin batera, zerga sistema progresiboago bat ezarri beharko litzateke, aukeraberdintasuna lortzen lagunduko lukeena, hezkuntzarako, osasunerako eta gizarte babeserako sarbidea hobetuz. Eta inbertsio publikoen bidez, enplegua zaindu eta ingurumena errespetatuko duen hazkundera sustatu beharko litzateke. Izan ere, Stiglitzen ustez, politika egokiak aplikatuz gero efizientzia eta zuzentasuna bateragarriak izan daitezke berak aldarrikatzen duen *kapitalismo aurrerakoiarekin*.

Bestalde, Iparreko ekonomietan dagoen desperekotasuna murrizteko, Atkinsonek (2016) zenbait neurri proposatzen ditu, bai lan arloan, soldata baxuenak igotzeko, bai zerga sisteman, progresibotasuna indartzeko. Eta Saezek eta Zucmanek (2021), Estatu Batuetako zerga sistemaren bilakaeraren azterketa sakona egin ondoren, ETN handiak eta aberats okituak nola zergapetu erakusten dute. Horrekin zerga justizia berreskuratu nahi dute, existitu baitzen herrialde horretan ia mende erdiz (1930eko hamarkadatik aurrera, haien ustez).

Bide beretik, Pikettyk (2014) dio desperekotasunaren aurka egiteko tresnarik egokiena kapitalaren gaineko zerga progresibo bat litzatekeela, mundu mailakoa. Utopikotzat jotzen duen arren, baliagarria iruditzen zaio hori erreferentzia izatea beste aukera batzuk haztatzeko. Horregatik, proposatzen du estatu soziala XXI. mendera egokitzea. Eta, ideologia desberdintzaileekin kontrajarrita, Piketty (2019) harago doa eta berak XXI. menderako *parte-hartzezko sozialismoa* deritzona proposatzen du, irismen unibertsala beharko lukeena. Horrek eskatuko luke enpresetan boterea benetan banatzea, jabetza soziala instituzionalizatzea, eta jabetzaren gaineko zerga oso progresiboa ezartzea. Neurri horiek gazte heldu bakoitzari kapitala ematea eta ondarea etengabe zirkulatzea ahalbidetuko lukete. Pikettyren proposamenak hezkuntza eta zerga justizia izatea ere eskatzen du, baita munduko ekonomia berrantolatzea ere, zerga, gizarte eta ingurumen elkartasuna bermatzeko modu berriak eskainiz.

Nolanahi ere, kapitalismoa erreformatzeko proposamen horiez gain, badira hura zalantzan jartzen duten beste batzuk ere. Hala, Nancy Fraserrek (2020) *ordena sozial instituzionalizatu* gisa ulertzen du kapitalismoa, barne hartzen dituela azpisistema ekonomikoaz gain esparru sozial, ekologiko eta politikoak ere. Horregatik, Karl Marxen eta Karl Polanyiren analisiak berrituz eta teoria feminista, ekologista eta postkolonialekin uztartuz, desperekotasunaren ardatzak nahitaez batera tratatu behar direla uste du. Haren ustez, *partaidetza parekotasuna* esan nahi du justiziak, eta horrek bestelako gizarte-xedapen batzuk eskatzen ditu, pertsona guztiek berdinen gisa parte har dezaten gizarte bizitzan. Horren guztiaren dimentsio ekonomikoak *birbanaketara* garamatza; dimentsio kulturalak, berriz, *aitortzara*, zeinak estatusari ere eragiten baitio (generoa, "arrazak", sexu aukera), eta dimentsio politikoak, *ordezkaritzara*. Hau da, bidezko banaketa baterako eta elkarrekiko aitortzarako eskubidea nork eta nola duen zehazten duten arau eta prozeduretara.

Izan ere, errentaren eta aberastasunaren banaketa, ekoizpenaren alorreko soldatapeko lanaren ustiapenarekin zuzenean lotua, ezin da ulertu aintzat hartu gabe haren azpiko posibilitate baldintzak (*ezkutuko lantegiak*, munduko kapitala metatzeko ezinbestekoak). Hau da, ordaindu gabeko eta ikusezin bihurtutako emakumeen zaintza lanean oinarritzen den erreproduzio soziala, *desjabetzearen* dinamika arrazializatua¹³, irabazi pribatuaren laguntza politikoak eta naturaren harrapakarritza sistematikoa. Esparru horietako bakoitzaren berezko kontraesanek eta haien artean sortzen direnek elkarri eragiten dioten krisiak

13 Desjabetzea Marxen ustiapenetik harago doa. Azken hori langile libreen soldata kontratazioaren ondorio da. Aitzitik, desjabetzeak (edo jabetzaz gabetzeak) ondasunen pilaketa kapitalista gizentzen du, baliabide materialak eta mendeko eskulana (ez librea, eta, gehienetan, arrazializatua) baliatuz. Eta ez da inperialismoaz eta esklabotasunaz bakarrik ari, egungo kapitalismo finantzarizatuan oraindik ere gertatzen baita hori. Besteak beste, lur metaketaren bidez, estraktibismoaren bidez, edo bereziki zaugarriak dira kolektiboetan (espetxe lana, sexu trafikoa...), eta hori, Iparrean, garai batean esplotatuak baino ez ziren herritarrengana hedatzen da prekarizazioaren bidez. Hori dela eta, gaur egun, gero eta lausoagoa da esplotazioaren eta desjabetzearen arteko muga (Fraser, 2020: 93-115).

sortzen dituzte *kapitalismo kanibal* honetan, eta hari eusten dioten oinarriak higitzen dituzte. Horregatik, Fraserrek (2021) kontrahegemonia antikapitalista bat eraikitzea proposatzen du, bidegabekeriaren askotariko alderdien arteko loturak agerian utziz eraldaketa ekosozial erradikal baterantz aurrera egiteko.

Enpleguaren prekarizazioa eta soldata apalak ditu ezaugarri globalizazio neoliberalaren kapitalismo finantzarizatuak, eta funtsezkoak dira enpresa handien onura izugarriak azaltzeko. Horrek Iparreko herritar "zurien" lan eta soldata baldintzak eta eskulan arrazializatuarenak parekatzen ditu. Ondorioz, gizatalde biak dira *desjabetuak*, gero eta gehiago, biziraupen mailara iristen ez diren soldatak jasotzen baitituzte, eta Lanaren Nazioarteko Erakundeak *langile pobreak* deitzen duen gizarte geruza gizentzen.

Neurriok, gainera, emakumeak lan merkatuan sartzeko prozesua bizkortu dute (familia ekonomiari eutsi ahal izateko), eta bi hornitzaileko etxe eredu orokortu. Horrek areagotu egin du emakumeen diskriminazioa, lanaldi bikoitza egitera behartuta baitaude, eta beste injustizia bat ekarri du berekin: zaintza kate globalak. Kateotan, Hegoko emakumeek ordainpeko zaintza lanak egiten dituzte Iparrekoen orde (oso lan prekarioak, dena dela), beren seme-alabak are pobreakoak diren beste emakume batzuen esku utzita.

Alde horretatik, ezinbesteko birbanaketa horrek errentatik eta aberastasunetik harago joan behar du. Ordaindutako zein ordaindu gabeko lan denbora ere zuzen banatu behar da gizonen eta emakumeen artean. Horrek esan nahi du nabarmen murriztu behar dela bien lanaldia, baina ez haien soldatak, enpresa handien irabaziak baizik. Era berean, parte hartze demokratikoko prozesuak berrantolatu behar dira. Izan ere, erabaki politikoak hartzeko esparruak (estatu mailakoak oraindik) ez datoz bat merkataritza eta finantza fluxuak arautzeko esparruekin (horiek, mundu mailakoak), ez eta arrazializatutako pertsona askok pairatzen duten bazterketa politikoarekin ere.

4. Azken gogoetak

Desparekotasunari eta hura defendatzen dutenei buruzko informazio gehigarria izateaz gain, horri aurre egiteko deia ere badira ondoko gogoetak.

4.1. Berdintasun materiala eta aukera berdintasuna

Muturreko desparekotasunak eta pobrezia haserre morala eragitea laudagarria iruditzen zaigu; eta aukera berdintasuna, oso helburu noblea, nahiz eta tranpa bat baino gehiago gorde barruan. Baina pobrezia aurre egitea, oso txalogarria izanagatik, ez da nahikoa. Eta are gutxiago hori guztia erretorika legitimatzaile hutsa denean, ez baitira jartzen arazoa konpontzeko beharrezko baliabideak. Halaxe gertatu zen Milurtekoko Garapenerako Helburuen kasuan: porrot egin zuten. Eta halaxe gertatuko zaie berriro, itxura guztien arabera, 2030eko Garapen Jasangarrirako Helburuei.

Aukera berdintasunak (diskurtso meritokratikoaren oinarria) ez du ahalegina saritzen. Aitzitik, oinordetzan jasotako pribilegioak, batetik, eta badaezpadako bitartekoak baliatuz lortutako aberastasun azkarrak, bestetik, legitimatzeko balio du. *Statu quoa* sendotzen du horrela, mugikortasun soziala geldiarazten laguntzeaz gain, horixe agintzen baitu. Horregatik, César Renduelesek (2020) dio benetan desiragarria litzatekeena berdintasun material sakona dela, emaitzetan islatua. Azken lau hamarkadotan neoliberalismoak ahuldu duen horixe bera.

4.2. Merkatu librea eta desparekotasuna

Kapitalismo neoliberalak desparekotasuna dakarrela esateak ez luke inor harritu behar. Hemen egindako deskribapenetik ondorioztatzen denez, kapitalismoak handitu egiten ditu, oro har, errentaren eta

aberastasunaren banaketan dauden desperekotasunak. Egia da, halaber, mundu gerrek eta krisi handi batzuek arindu egin dutela joera hori, eta merkatuen estatu erregulazioak egoera iraultzea lortu zuela hamarkada batzuetan.

Kapitalismoari dagokionez, Marxek eta haren jarraitzaileek aspaldi esan zuten kapitalaren kontzentrazioarako eta zentralizazioarako joera duela sistema honek. Eta erregulazioari dagokionez, teoria ekonomiko neoklasikoak bakarrik babesten du merkatu autoerregulatuen eraginkortasuna, nahiz eta errealtate egoskorrak behin eta berriz ukatu hori, eta Polanyiaren eta beste batzuen analisisiek kontrakoa azaldu.

4.3. Analisi neoklasikoaren hegemonia, neoliberalismoa eta desperekotasuna

XIX. mendearen amaieratik, ondasun baten balioa ondasun horrek merkatuan duen prezioarekin parekatzen du analisi neoklasikoak. Ikuspegi horrek goitik behera irauli zuen ekonomia klasikoa (balio-lanaren teoriari buruzko bertsio desberdinetan oinarritua), zeinak lortzen baitu ondasun baten balioa haren ekoizpen kostuarekin. Eta, gainera, ez du bereizketarik egiten balioa sortzearen eta balioa ateratzearen artean. Horixe egiten dute, hain zuzen, errentatzaileek (presentzia handia baitute finantzen, teknologiaren eta farmazien sektoreetan): besteek sortutako aberastasunaren zati bat bereganatu (Mazzucato, 2019).

Azterketa neoklasikoa indibidualismo metodologikotik abiatzen da, eta, pertsonarteko konparazio erabilgarriak objektiboak ez baizik balio iritziak direlako hipotesian oinarrituta, erakusten du *Paretoren hobeezin* bat dela konkurrentzia perfektuan baliabideak esleitzea. Horrek esan nahi du, behin puntu horretara iritsita, ezinezkoa izango dela elkarrekiko truke onuragarriak egitea, eragileren baten gogobetetasuna handitzeak besteren batena murriztea dakarrelako ezinbestean. Premisa hori defendaezina da, *statu quo*a mantentzea beste helbururik ez duen beste balio iritzi bat baita. Hori dela eta, komeni da jakitea ideia horren egilea eliteen defendatzaile sutsua izan zela¹⁴: besteak beste, aldeztu zuen desperekotasunak egonkorak zirela, hori frogatzeko daturik ez izanda ere (Piketty, 2014).

Neoklasikoentzat, kapitalaren eta lanaren produktibitate marjinalen arabera banatzen da errenta. Banaketaren teoria hori lege natural bat bezala aurkezten zen, arazo tekniko soil bat bezala, bakoitzari sortu duena ematen diona, klase borrokarik ez balego bezala. Beraz, estatuak diru sarrera birbanatzeko (ekitatea) egindako esku-hartze oro kaltegarria izango litzateke hazkunde ekonomikorako (efizientzia). Horra zergatik duen teoria ekonomiko neoklasikoak eliteen baldintzarik gabeko babesa, ahultasun analitiko nabarmenak gorabehera, eta zergatik duen hura oinarritzat neoliberalismoak.

Gerraostean sintesi neoklasikoan txertatutako keynesianismoak ere leku garrantzitsua bete bazuen ere, 1980ko hamarkadatik analisi neoklasikoa izan da doktrina ekonomiko hegemonikoa mundu akademikoan. Hainbesteraio da hori horrela, ekonomiako fakultateetan ia ez baitzen besterik irakasten, beste hainbat aukera egon arren¹⁵. Alde horretatik, oso interesgarria litzateke korrante kritikoen paradigma integratzaile bat eraikitzen saiatzea, ekonomia politikoaren, ekonomia feministaren eta ekonomia ekologikoaren ikuspegiak elkarrekin nahasteko eta uztartzeko gai izango litzatekeena¹⁶.

Hegemonia edo nagusigo hori lortzeko bidean zeresan handia izan dute elite ekonomikoen lobby lanak eta ideien laborategi neoliberal boteretsuek (*think tanks*), beti bultzatu baitute doktrina hori. Eta azken

14 Eliteei buruzko bere teoriak eragin handia izan zuen faxismoan. Hala, bere lagun Benito Mussolinik bizi arteko senatari izendatu zuen Vilfredo Pareto. Hori bai, berak ere desperekotasunari buruzko oso ikuspegi kontserbadorea zuen arren, ez zen Corrado Gini estatistikaria bezain urrun iritsi: 1927an, Faxismoaren oinarri zientifikoak liburua idatzi zuen Ginik.

15 Mugarik Gabeko Ekonomialariek bi argitalpen bikain dituzte, aukerok laburbiltzen dituztenak: *Hacia una economía más justa. Una introducción a la economía crítica* eta *Hacia una economía más justa. Manual de corrientes económicas heterodoxas*. Eta beste bat *ekonomiaren irakaskuntza* Espainian nolako izan den aztertzen duena.

16 Bide horretan, zenbait urrats eman dira, eta **ekonomia inklusiboa** deitura proposatu.

hamarkadetan, unibertsitate hezkuntzaren kalitatea ebaluatzeko agentzia publikoak ere zeresanik izan du horretan. Agentziok ikasketa planak gainbegiratu eta irakasleak akreditatzen dituzte, eta konpetentzia aipatzen eta goraiatzen duen arrazionaltasun neoliberalaren arabera baldintzatzen dute haien karrera akademikoa. Ekonomian, baztertu egiten dituzte irakaskuntzaren eta ikerketaren pentsamendu korrante kritikoak, *prestigio handiko* aldizkari akademiko gehienak argitaratzen dituzten multinazional gutxi batzuen esanetara jarrita.

Horregatik, seriozki aztertu nahi badira errentaren eta aberastasunaren banaketan dauden desparekotasunak, eta konbikzio etikotik aurre egin nahi bazaio arazoari, azterketa neoklasikotik eta haren ondorio neoliberalatik aldendu behar gara, doktrina horiek desparekotasuna zuritzen baitute beti, ekonomiaren mesedetan. Elite ekonomikoek estaldura ematen dietelako. Eta zer egiten dute bitartean eliteok? Publikoa dena, denona dena (eta esaten dutenaren aurka eraginkortasunez kudea daitekeena) gogor kritikatu eta bertan eskua sartuz aberastu. Eta, horretarako, elite politikoei (lobby lanaren eta ate birakarien bidez zuhurki hautatuak) ez ikusiarena egin eta laguntza ematen diete, baina beren burua legitimatzeko beharrezko proiektio publikoari uko egin gabe betiere, Davoseko Foroan bezala.

4.4. Haserretu... eta ekin

Egungo desparekotasuna, besteak beste planeta pairatzen ari den harrapaketa ere azkartzen ari dena, eskandalu handia da, kapitalismo neoliberalak eragina. Baina ez dago baliabide arazo gaindiezinik gizaki guztiok biosfera suntsitu gabe ondo bizi ahal izateko. Gizakion aukera bat da, erabaki politiko bat, errenta eta aberastasuna birbanatzea eskatzen duena, orain eta etorkizuneko belaunaldientzat.

Haserretzea beharrezkoa da, eta oso ona. Baina gero nagiak atera, altxatu eta ekin egin behar da: *matxinada baketsuaren* aldeko deia egin zuen 2010ean Stéphane Hesselek, 93 urte zituela. Deiak nolabaiteko oihartzuna izan zuen orduan gizartean, eta orain premiazkoa deritzogu espiritu hori berreskuratzeari. Natura, botere publikoa, erreproduktio soziala eta desjabetutako populazioak kanibalizatzen dituen kapitalismo horren aurka borrokatzeko (Fraser, 2021).

Hori nola egiten den? Benetako justizia sozial eta ingurumenekoaren alde borrokan ari diren mugimendu sozialetan eta organizazioetan parte hartuz, adibidez; ez baita nahikoa, inondik ere, kapitalismoa berritzen saiatzea. Eta klase politikoa deiturikoaren zati handi batek (dela bere bertsiorik nabarmenena, dela ustezko hirugarren bideetan barrena ustezko asmo aurrerakoiak hartuta ibiltzen dena) duen jokabidearen funts neoliberalak salatuz. Izan ere, gehiengo handi horrek lau hamarkada daramatza etengabe ETNren eta fortuna handien aldeko legeak egiten (zerga beherapenak, pribatizazioak, lana desarautzea, jabetza intelektuala indartzea, nazioz gairik arbitraje auzitegiak...), plutokrazia bat sendotzen. Beraz, premiazkoa dugu gehiengo hori gutxiengo bihurtzea parlamentu guztietan, eskualde zein estatu mailakoetan eta Europan. Ez botoa ez abstentzioa emanez. Bidezkoa da, legitimoa eta beharrezkoa. Gure oraina dago jokoan, zuen etorkizuna dago jokoan... eta planeta osoarena.

5. Bibliografia

- ALVAREDO, Facundo, Lucas CHANCEL, Thomas PIKETTY, Emmanuel SAEZ eta Gabriel ZUCMAN (koord.) (2018): *World Inequality Report-2018*, World Inequality Lab.
- ATKINSON, Anthony (2016): *Desigualdad: ¿Qué podemos hacer?*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko.
- BOURGUIGNON, François eta Christian MORRISSON (2002): "Inequality among World Citizens: 1820-1992", *American Economic Review* (92)4, 727-744.
- BROWN, Wendy (2016): *El pueblo sin atributos. La secreta revolución del neoliberalismo*, Malpaso, Bartzelona.
- CHANCEL, Lucas eta Thomas PIKETTY (2021): "Global Income Inequality, 1820-2020: The Persistence and Mutation of Extreme Inequality", *World Inequality Lab – Working Paper 2021/19*.

- COBHAM, Alex, Luke SCHLOGL eta Andy SUMMER (2015): "Inequality and the Tails: The Palma Proposition and Ratio Revisited", *UN/DESA Working Paper*, 143.
- CREDIT SUISSE (2018): *Global Wealth Report 2018*.
- CREDIT SUISSE (2021a): *Global Wealth Report 2021*.
- CREDIT SUISSE (2021b): *Global Wealth Databook 2021*.
- FRASER, Nancy (2020): *Los talleres ocultos del capital*, Traficantes de sueños, Madril.
- FRASER, Nancy (2021): "Los climas del capital", *New Left Review*, 127, 101-138.
- KLEIN, Naomi (2007): *La doctrina del shock. El auge del capitalismo del desastre*, Paidós, Bartzelona.
- LAKNER, Christoph eta Branko MILANOVIC (2016): "Global income distribution: from the fall of the Berlin Wall to the Great Recession", *The World Bank Economic Review*, 30.2, 203-232.
- LAVAL, CHRISTIAN eta PIERRE DARDOT (2013): *La nueva razón del mundo. Ensayo sobre la sociedad neoliberal*, Gedisa, Bartzelona.
- MADDISON, Angus (2002): *La economía mundial. Una perspectiva milenaria*, Mundi-Prensa, Madril.
- MAZZUCATO, Mariana (2019): *El valor de las cosas. Quién produce y quién gana en la economía global*, Taurus, Madril.
- MILANOVIC, Branko (2017): *Desigualdad mundial. Un nuevo enfoque para la era de la globalización*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko.
- MILANOVIC, Branko (2020): *Capitalismo nada más. El futuro del sistema que domina el mundo*, Taurus, Madril.
- LNE (2018): *Care work and care jobs for the future of decent work*, Lanaren Nazioarteko Erakundea, Geneva.
- LNE (2019): *Informe Mundial sobre Salarios 2018/19: ¿Qué hay detrás de la brecha salarial de género?*, Lanaren Nazioarteko Erakundea, Geneva.
- PIKETTY, Thomas (2014): *El capital en el siglo XXI*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko.
- PIKETTY, Thomas (2019): *Capital e ideología*, Ediciones Deusto, Bartzelona.
- RENDUELES, César (2020): *Contra la igualdad de oportunidades: un panfleto igualitarista*, Seix Barral, Bartzelona.
- SAEZ, Emmanuel eta Gabriel ZUCMAN (2021): *El triunfo de la injusticia. Cómo los ricos eluden impuestos y cómo hacerles pagar*, Taurus, Madril.
- SLOBODIAN, Quinn (2021): *Globalistas. El fin de los imperios y el nacimiento del neoliberalismo*, Capitán Swing, Madril.
- STIGLITZ, Joseph (2012): *El precio de la desigualdad*, Taurus, Madril.
- UNCTAD (2018): *El poder, las plataformas y la quimera del libre comercio. Informe sobre el Comercio y el Desarrollo 2018*. Nazio Batuak, New York eta Geneva.

- 1. Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
- 2. Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
- 3. Garapena feminismotik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 4. Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Eziguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 5. Amildegia so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 6. Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 7. Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 8. Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martínez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 9. XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratu, Hegoa Institutua.
- 10. Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Eflen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldúa, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
- 11. 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOIA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- 12. Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
- 13. Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
- 14. Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.
- 15. Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia.** Carlos Askunze Elizaga, REAS Euskadi. María Angeles Díez López, UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.
- 16. Kontabilitate Finantzarioaren begirada zabalduz Gizarteari eta Naturari buruzko informaziora. Gizarte Kontabilitatearen jatorria, eboluzioa eta etorkizuneko erronkak.** Ainhoa Garayar, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Maider Aldaz, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Igor Alvarez, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Jone Arocena, Gestoría Aguirre Gestión.
- 17. Txina: Garapen eredu biberatzea eta munduko ekonomian zeregin berria.** Juan Barredo-Zuriarrain, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle laguntzailea. Ricardo Molero Simarro, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Egitura Ekonomikoko eta Garapenaren Ekonomia Saileko irakaslea.

- 18.** Happykrazia: psikologia positiboaren hedapena eta bizitzaren psikopatologizazioan duen eragina. Maria Lopez Castillo, HEGOA/EHUko Globalizazioa eta Garapena Masterreko ikasle ohia. Galdakao-Usansolo Ospitaleko erizaina.
- 19.** Herri Administrazioaren erosketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak Artizar Erauskin, Ekonomia Aplikatua I Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 20.** Klima-aldaketari buruzko hitzaurrea: inpaktuak eta egokitzapena. Elisa Sainz de Murieta, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa. Marta Escapa1, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa, Anlisi Ekonomikoko Saila, EHU.
- 21.** Sumak kawsay, buen vivir, bizitze ona Garapenari alternatiben bila. Unai Villalba-Eguiluz, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakasle-ikertzailea. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Araba.
- 22.** Errenta eta aberastasun banaketaren desparekotasuna munduan. Patxi Zabalo Arena. Ekonomia Aplikatuko Institutua eta Hegoa Institutua, UPV/EHU.

